GEHIGARRI BEREZIA: BERGARAKO JAIAK

# Goienka

EGUBAKOITZA • 2003ko ekainaren 6a • IV. urtea • 113. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




**Goienka2a**
Lau debagoiendar, Araba Euskaraz-en antolaketan

**JOSE ANTONIO MENDIKUTE**
*"Komunikazioaren alorrean espezialdutako teknikariak eskatzen dihardute enpresek"* /7

**TXIRRINDULARITZA**
Markel Irizar, Gipuzkoako txapeldun erlojuaren kontra /10

**ASTEKO GAIA:** LANTEGI ASKO, JENDE BILA /3

# Maila oneko teknikarien beharra

Debagoieneko lantegi eta tailer askok prestakuntza maila oneko langileen premian daude, baina zailtasunak dituzte horiek aurkitzeko. Hori dela-eta, Adegi enpresaburuen elkarteak lantegien errealitatea gazteei ezagutzera emateko plan bat jarri zuen abian Bergaran, Lanbide Heziketan gazte gehiago matrikula daitezen lortzeko asmoz.

Jende kualifikatua behar dute lantegiok, eta emakumeei dei berezia egiten diete arlo mekaniko edo teknologikoko ikasketak egin ditzaten.



J.A. MIGURA

## Bost autobus berri Debagoienerako

Eibartik Eskoriatzara arteko bidea egingo dutenVolvo markako bost autobus urbano berri aurkeztu zituzten atzo Bergaran. Zerbitzu hori eskainiko duen Pesa konpainiako arduradunak eta Gipuzkoako garraio zuzendaria egon ziren, beste batzuen artean, aurkezpen ekitaldian. 901.500 euroko inbertsioa egin du konpainiak eta, beste hobekuntza batzuen artean, gutxitu fisikoendako prestatuta daude autobusok. Foru Aldundiak, bestalde, kostuaren herena hartu du bere gain. Bost autobusek 76 lagunendako tokia dute: 55 eserita eta 21 zutik. Gaurtik Debagoieneko errepideetan ibiliko dira. Bost horiekin, 21 dira Pesak urtean barrena Debagoienera ekarri dituen autobus berriak. Aurretik, beste 16 ekarri zituen: Gasteiz, Bilbo eta Donostiarako bidea egiten dutenak, hain justu.

**PILOTA**

### Berraondok lehen mailako txapelketan jokatuko du



■ *Xabier Imazi 22-12 irabazi zion Aritzek*
■ *Astebete lehenago galdu egin zuen finala*

Astelehenean Xabier Imazi 22-12 irabazi ondoren, lehen mailarako txartela lortu du, azkenean, Aritz Berraondo pilotari antzuolarrak.

Astebete lehenago, Peñagarikanoren aurka txapelketako finala galdu egin zuen, eta astelehenekoa zuen Aritzek mailaz igotzeko azkeneko aukera. Gauzak horrela, datorren denboraldian pilotari onenen artean izango dugu antzuolarra, orain dela bi denboraldi bezala. Izan ere, iaz maila galdu zuen eta bigarrenera jaitsi zen. Orain, berriz ere berreskuratu du. /10

**BERGARA**

### Barandallaren aldeko manifestazioa Mendekoste jaietan

Bergarako jaietan aldarrikapenek ere izango dute tokia. Izan ere, manifestazio bi antolatu dituzte aste bukaerarako: bata bihar, zapatua, Bautista Barandallaren alde; eta bestea, domekan, Lastertasun Handiko Trenaren aurka. /5

ARRASATEN
PABILIOI INDUSTRIAL/KOMERTZIALA
SALGAI
Leku ezin hobean 3.600 m²
Bulegoendako instalazioak, elektrizitatea, aire girotua, komunak
3.600 m², moduluak 300 m²-tik aurrera
575 euro/m²-tik aurrera (96.500 pta.)
629 06 14 72



Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
Touran

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21


Elgoibarko Institutua
San Roke, 1 Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
ELGOIBARKO INSTITUTUA
2003-2004 ikasturtea
zatoz elgoibarko institutura
LANBIDE HEZIKETAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK
ERDI MAILAKO ZIKLOAK: TEKNIKARIA
Elektromekanika (Automozioa, 2.000 ordu)
Karrozeria (Automozioa, 2.000 ordu)
Merkataritza ( 1.400 ordu)
Erizaintza laguntza osagarriak ( 1.400 ordu)
GOI MAILAKO ZIKLOAK: GOI TEKNIKARIA
Automozioa
Administraritza eta finantzak
Ingurugiro osasuna
HEZKUNTZA ZIKLOETARAKO AURREMATRIKULA: ekainaren 2tik 11ra
Azpiegitura teknologiko aurreratuena, 80 ikasgairen eskaintza, lan praktikak Europan, Irakasle lizentziatu, ingeniari edo diplomatuak, ISO 9002 kalitate ziurtagiria, prozedura garden eta kontrolatuak, lan munduan sartzeko emaitza ezin hobeak


Beste inon baino horma-armairu eta ate gehiago
LANLEKURAKO
GAZTEEN GELARAKO
EGONGELARAKO
LOGELARAKO
Kruz Gallastegi 9
BERGARA
943 76 38 10
GELAN
visel
ATEAK
banatzaile ofiziala

# Lana eman nahi, eta langilerik ez

## Teknikari kualifikatu faltan daude ibarreko enpresa asko

LEIRE KORTABARRIA

Gazteek sarrien izaten duten kexuenetariko bat langabezia izaten da. Batez ere emakume gazteek izaten dituzte arazo handienak lanpostu on bat aurkitzeko. Egoera paradoxiko baten aurrean gaude, ordea, EAEko tailer eta lantegi gero eta gehiago langile faltan daude-eta. Horrela diosku Debagoieneko enpresaburu batek: "Guk gaur bertan hartuko genuke jende berria, baina ez dugu behar dugun langile mota aurkitzen".

Gabezia hori bereziki nabarmena da Debagoienean, gure ibarrean euren oinarria ekoizpen mekanikoan, teknologian… duten lantegi asko eta asko daude-eta. Horri aurre egiteko, Gipuzkoako enpresarien elkarteak, Adegik, plan pilotu bat jarri du abian, Lanbide Heziketa zentroetara ikasle gehiago erakartzeko asmoz. Plan horren barne, hainbat ikastetxetako orientatzaileak Bergarako Lazpiur enpresan egon ziren, errealitate hori hobeto ezagutu eta euren heziketa erabaki behar duten ikasleei gerturatzeko.




LEIRE KORTABARRIA

**Adegik hainbat ikastetxetako orientatzaileak gonbidatu zituen Bergarako enpresa batera, lan mota hori ezagut zezaten.**

### PRESTAKUNTZA MAILA ALTUAGOA

Debagoienean lanbide heziketa zikloak eskaintzen dituzten lau zentro ditugu: Aretxabaletan, Bergaran, Arrasaten eta Oñatin. Aurten 1.310 ikaslek dihardute ibarreko ikastetxeetan. Ikasle kopuru antzekoa izan dute azken urteotan, baina aurreikuspenak ez dira baikorrak. Jose Mari Larrañaga bergararrak, Eusko Jaurlaritzan Lanbide Heziketaren planifikazio eta sustapenaren arduradunak, honela dio: "Jaiotze tasa asko jaitsi da, eta joera horrekin segitzen du. Kontuan hartu behar da, era berean, batxilergoa bukatzen duten ikasleen %46 inguru etortzen direla Lanbide Heziketara. Gure helburua da %50era iristea".

Baina arazoa ez da ikasle falta bakarrik; arazoa da enpresen eskakizunak zorroztu egin direla: "Maila teknologikoa asko igo da; makinak sofistikatuagoak eta kontrolatzen ikasteko zailagoak dira orain, eta lantegiei komeni zaie, euren langileria erretiratzen doan neurrian, prestakuntza sendoa duen jende gaztea hartzea", dio Jose Mari Larrañagak. Baina, jakina, horiek kualifikazio maila altua izan behar dute.

### EMAKUMEEK, AUKERA HANDIAK

Gipuzkoako eta –gure ibarreko enpresen espezializazio mota ikusita– bereziki Debagoieneko enpresek jarritako plan pilotuaren helburua da ikasleei gaur egungo lantegien errealitatea hurretik ezagutzera ematea. Baina plan hori, batez ere, sektore jakin bat erakartzeko dago pentsatuta: emakumeak, hain zuzen ere.

Bai Adegiko arduradunak, bai kontsultatutako enpresaburu debagoiendarrak, bai eta Eusko Jaurlaritzako arduradunak ere bat datoz esaten nesken esku dagoela, maila handi baten, sektore teknologikoaren eta mekanikoaren indartzea: "Oso pozik gaude ditugun emakumezko langileekin, eta gehiago hartu nahi genituzke, baina ez dugu aukerarik", dio Migel Lazpiur enpresaburu bergarararrak.

Jose Mari Larrañaga Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sustapenerako arduradunak honela diosku: "Tailerreko lana, makinekin egin beharrekoa, funtsean, ez da aldatu, eta horrek errespetua inposatzen die askori. Zaila da mentalitate hori aldatzea, baina ahalegina egin behar da. Emakume gazte asko eta asko daude langabezian edo lan eskasetan, eta horrek ez luke horrela izan beharko. Emakumeek oso maila altua izaten dute ikasketetan eta, oro har, prestakuntza orokorrean. Nik beti esaten dudana da Lanbide Heziketan badaudela emakumezko irakasleak. Hortaz, zergatik ikasleak ere ezin daitezke emakumezkoak izan?", da haren gogoeta.

Gaur egun Lanbide Heziketarako matrikulatzen direnen artean, emakumeek, batik bat, administrazio, merkataritza… adarretara jotzen segitzen dute, eta mekanika eta teknologia adarretan euren presentzia %1ekoa da. Aditu guztiak bat datoz esaten iritsi dela garaia jokabide horiek aldatzeko; izan ere, lan etorkizun bikain bati uko egiten egon daitezke emakume asko.



# Ibarrean 36ko gerran fusilatutakoei omenaldia egingo diete domekan

*Arrasaten izango dira ekitaldiak: besteak beste, meza, hitzaldiak eta monolitoaren inaugurazioa*

LEIRE KORTABARRIA

**Etzi izango dira Espainiako gerran fusilatu zituzten debagoiendarren aldeko omenaldia eta haien oroitzapenean egin duten monolitoaren inaugurazioa. Debagoieneko Fusilatuen eta Desagertuen Senide eta Lagunen batzordeak antolatu ditu ekitaldiok.**



UBANE MADERA
**Martitzenean hasi ziren omenaldi ekitaldiak Mondragoeko udaletxean, 'Arrasate 1936. Belaunaldi etena' liburuaren aurkezpenarekin.**

Batzordeak gogorarazten digu zelan sasi-epaiketen ondoren, kasu batzuetan, edo odol hotzean, bestela, hil zituzten frankistek "gutxienez 114 pertsona" Debagoienean. "Urte batzuk, 66, pasatu eta gero, omenaldia egingo diegu", gaineratzen dute.

Omenaldia Arrasaten izango da, eta debagoiendar guztiak daude parte hartzera gonbidatuta. Lehenengo, errepresaliatuen aldeko meza egongo da, San Juan Bataiatzailearen parrokian, 11:00etan; ordubete geroago, monolitoa inauguratuko dute Laubide plazan. Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio bertsolariek, Arrasate Musikaleko taldeek eta Goikobalu abesbatzak hartuko dute parte, eta ibarreko alkate guztiek izango dute publikoari berba egiteko aukera.

Monolitoa hiru piezaz osatua dago: *Gure gogoan zaudete* leloa izango du, baita orain arte baieztatutako Debagoieneko fusilatu guztien izen-abizenak ere; hala ere, batzordearen ikerketa lanak aurrera segitzen duenez, izen gehiago idatzi behar denerako lekua izango du monolitoak. Juan Ramon Garai batzordeko ordezkariak dioskunez, debagoiendarrek gogoz hartu dute parte euren testigantzarekin, eta horri esker izan da posible hasierako 89 izenetatik 114etara iristea.

Omenaldiaren barne ere, *1936, gogoaren bidezidorretatik* antzerki eta dantza saioa egongo da bihar, zapatua, Arrasateko Amaia Udal Antzokian, 20:00etan.

Oroimena piztuta edukitzeko ekintzak ez dira hor bukatzen. Izan ere, joan den martitzenean aurkeztu zuen Mondragoeko Oktubre taldeak *Arrasate 1936. Belaunaldi etena* liburua, orain dela 17 urte argitaratu zenaren berrargitalpen eta moldaketa. Ardatza Espainiako gerraren eragina bada ere, horretara iristeko Arrasateko eta Debagoieneko beste herri batzuetako historiaren berri ematen du. Bigarren edizio horrek testigantza hunkigarriak jasotzen ditu, baita argazki asko ere. Euskal Herriko liburu dendetan dago salgai, 18 eurotan.

Bitartean, azken boladan aurkitutako gerrako giza arrastoen identifikazio lanak aurrera doaz. Aranzadi Zientzia Elkartea dabil lan horretan, eta elkarteko auzitegiko medikuek zera diote: "Hainbat hilobi komun non dauden badakigu, baina ez gara arrastoekin lanean hasi. Bat Deskargako bihurgune baten zegoen, baina arrastoak atera egin zituzten orain dela 20 urte; beste bat Elgetan dago, eta han hainbat gorpuzki daude; eta Aretxabaletan ere badago hilobi bat". Bedoñan aurkitu zituzten gorpuzkien gainean ez dago berri gehiagorik.

## Lankidetza ituna sinatu dute Goienak eta HUHEZIk

IRATI AGIRREAZALDEGI

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI) eta Goiena Komunikazio Zerbitzuek lau urterako hitzarmena sinatu dute.

Humanitateak-Enpresa karrerak bide berri bat ireki du ikasketen barruan, Komunikazioa Enpresan; horren ondorioz, bi enpreson arteko lankidetza bultzatu nahi dute.

Horrela, HUHEZIko ikasleek kooperatiban egin ahal izango dituzte praktikak edo karrera amaierako proiektuak. HUHEZIk, bestalde, Goienako langileak prestatzeko ardura hartuko du.

Horrez gainera, elkarrekin zenbait proiektu garatzeko bideak ireki ditu hitzarmenak, adibidez, ikaskuntza eta komunikazio teknologietan.

## Kooperatibak hizpide, Jose Mari Ormaetxearen azken liburuan

I.A.

*Didáctica de una Experiencia empresarial: el cooperativismo en Mondragón* liburua aurkeztu du Jose Mari Ormaetxeak. Egilea, Arrasateko kooperatiba esperientziaren sortzaile eta eragile izan da, eta 30 urtez esparru horretan egindako lana batzen du liburuan. Besteak beste, talde sustatzaileak, produktuak, lankidetza teknikoa, bideragarritasun azterketak eta haien emaitzak dira lanaren gaiak.

LASAGABASTER

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## BAILARAN LABUR

### Gipuzkoako errepideen gaineko liburua argitaratu du Foru Aldundiak

Gipuzkoan 1833. eta 1937. urte artean eraiki ziren errepide garrantzitsuenak batzen ditu Jose Antonio Rodríguezek egin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide sailak argitaratu duen liburuak. *Gipuzkoako komunikabideen historia 1833-1937* izenburupean, besteak beste, bideen planoak eta argazkiak aurki ditzakegu lan horretan. Errepideetan izandako aldaketak ditu oinarri, eta, adibidez, animaliek garraiatutako gurdiak eta autoak errepideetan batera ibiltzen zireneko garaiak ekarri ditu gogora./I.A.

### Puntu Berde Mugikorra zerbitzua jarriko dute, etxeko hondakinak jasotzeko

Puntu Berde Mugikorra izena jarri dio Debagoieneko Mankomunitateak etxean erabilitako olioa eta hondakin arriskutsuak batzeko zerbitzuari. Antzuolan eta Elgetan bi hilean behin egingo dute bilketa, hileko azken egubakoitzetan. Debagoieneko gainerako herrietan, berriz, hilean behin jasoko dituzte hondakinak. Bilketa goizean 09:00etatik 13:00etara egingo dute, Elgetan eta Leintz Gatzagan salbu, haietan 16:00etatik 20:00etara eta 13:30etik 14:30era egingo dute-eta, hurrenez hurren./I.A.

### Antzuolako Olaran etxean Enpresa Ekintzetarako Zentroa zabaldu dute

Antzuolako Olaran etxeko bigarren eta hirugarren solairuetan Enpresa Ekintzetako Zentroa jarri du Mankomunitateak. Zentroaren helburua ekimen berriak bultzatzea da. Horretarako, Mankomunitateak lokalak lagatzen dizkie ekintzaile berriei, merkatuko prezioekin alderatuta, oso merke. Guztira hamaika bulego prestatu dituzte eta horietako bulego bat zabaldu dute. Bergarako Mireia Alberdik dietetika kontsulta jarri du bertan./I.A.

### Burdingintzaren gaineko lana kaleratu dute ofizio zaharren gaineko liburu bilduman

*Burdina: errementariak eta perratzaileak* da Bergarako Udalak ofizio zaharren gaineko bilduman kaleratu duen azken liburuaren izenburua. Bilduma horren bidez, galduta edo galtzear zeuden lanbideetako lexikoa, esamoldeak eta jakintza jaso nahi izan dira. Burdingintzari dagokion atala Iñaki Arana bergararrak egin du. 300 argazki eta irudiz hornitu dute, modu didaktikoan antolatuta dagoen lana. Liburua eta bilduma guztia gordetzeko kutxa aste honetan jarri dute salgai Bergarako liburu dendetan./I.A.

### Ibarreko metal arloko lantegi batzuetan enpresa hitzarmenak egin dituzte

Metal arloan egindako greben ostean, ibarreko zenbait enpresatan hitzarmenak egin dituzte, eta beste hainbatetan negoziatzen ari dira. Guztira, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko 13 enpresa dira akordiorik egin barik berbetan ari direnak. Beste sei enpresatan konbenioaren araberako ordu murrizketa adostu dute, eta soldata igoerarik ere izan da. Hortaz, sindikatuen eskari batzuk betetzen ari dira enpresaburuak./I.A

### Eskoriatzan 82 urteko gizonezko bat hil zen martitzenean, auto batek harrapatuta

Eskoriatzako gizonezko bat hil zen joan den martitzenean, ekainaren 3an, izandako auto istripuan. GI-627 errepidean gertatu zen istripua, Eskoriatzan bertan. Seat Leon auto batek bidea gurutzatzen ari zen oinezkoa harrapatu zuen. Horren ondorioz, J.E.U. 82 urteko gizonezkoak oso zauri larriak jasan zituen, eta Arrasateko ospitalera bidean hil egin zen. Ertzaintza istripuaren arrazoiak ikertzen ari da oraindik. /I.A.

### Maiatzaren 31n bertan behera utzi zituzten Julian Gantxegi bergararra bilatzeko lanak

Julian Gantxegi 53 urteko bergararra joan den maiatzaren 21ean desagertu zen Ondarroa eta Lekeitio artean arrantza egitera joan zenean. Lanera azaltzen ez zelako kezkatuta, haren bila hasi eta autoa baino ez zuten aurkitu. Kanabera ere aurkitu dute, eta liteekeena da itsasora jaustea. Urpekariak, ertzainak helikopteroz eta lagunak haren bila ibili dira, baina emaitzarik ezean bertan behera utzi zituzten joan den maiatzaren 31n bilaketa lanak./I.A.




ARGAZKI PRESS
Jon Barrutia Unibertsitate sailburuordea, Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburua eta Juan Jose Álvarez Bergarako UNEDeko zuzendaria.

# Iparraldekoek euskaraz egin ahal izango dute selektibitatea UNEDen

*UNEDek eta Jaurlaritzak hitzartu duten lankidetza akordioari esker*

ENEKO AZKARATE

**Hego Euskal Herririk kanpo bizi diren ikasleek euskaraz egin ahal izango dute hauta-proba. Bergarako UNEDen egingo dute selektibitatea euskaraz, zentro horrek eta Eusko Jaurlaritzak oraingo astean sinatutako hitzarmenari esker.**

Aukera horrek ateak irekiko dizkie batez ere Ipar Euskal Herrian euskaraz ikasten duten ikasleei, Seaskako ikastoletan umetatik ari direnei eta EHUn euskaraz ikasten segitu nahi dutenei, hain justu ere. Esaterako, egunotan 10 ikasle ari dira selektibitateko azterketa euskaraz egiten Portugaleteko UNEDen; irailean beste 20-21ek egingo dute.

Jaurlaritzak eta Bergarako UNEDek egin duten akordioari esker izango da hori. Eguaztenean eman zuten lankidetza hitzarmen horren berri Juan Jose Álvarez Bergarako UNEDeko zuzendariak eta Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuak. Hauta-proba euskalduna mundu osoko ikasle euskaldunek egin ahal izango badute ere, lankidetza hitzarmen horrek onura handien Seaskako ikasleei ekarriko die. Izan ere, ikasle horiek gaztelaniaz egiten zituzten azterketak Pariseraino, han dagoen Espainiako enbaxadaraino, joanda. Eta emaitzak gainerakoenak baino kaskarragoak ziren, arazo metodologikoak zirela medio. Horregatik, "bidegabekeria handi bati aurre egin" diotela uste du Bergarako UNEDeko zuzendari Juan Jose Álvarezek.

# Presoen aldeko eta tren azkarraren aurkako manifestazio bana Bergaran

*Eskualde mailako manifestazioak izango dira zapatuan eta domekan*

E.A.

**Bergarako jaietan aldarrikapenek ere izango dute tokia. Izan ere, manifestazio bi antolatu dituzte asteburuko: bata bihar, zapatua, Debagoieneko Etxerat-ek antolatuta, Bautista Barandallaren egoerarengatik protesta egiteko; bestea, domekan, AHT Gelditu Elkarlana! taldeak antolatuta, Lastertasun Handiko Trenaren aurka.**

Debagoieneko Etxerat taldeak hainbat ekimen antolatu ditu Bautista Barandalla eta Jose Inazio Goikoetxea *Fiti* presoek bizi duten egoera salatzeko. Hain justu ere, atzo, eguena, hitzaldia egin zuten Oñatin Barandallaren neskalagunak eta medikuak. Bestalde, Etxerat-ek ibarreko hainbat talde, erakunde, sindikatu, indar politiko eta pertsona ezagunen sinadurak batu ditu preso iruñearraren alde. Ekitaldiokin amaitzeko, manifestaziorako dei egin dute zapaturako. Manifestazioa San Martin plazatik abiatuko da 19:00etan. Bergarako Txosnen batzordeak ere bat egin du manifestazio horrekin.

AHT Gelditu! Elkarlana taldeak beste manifestazio bat antolatu du domekarako Bergaran, 18:00etan, Bideberriko txosnen gunetik abiatuta eta *Ama lurra defenda dezagun* leloa hartuta. Lastertasun Handiko Trena, Eibar-Gasteiz autobidea, Debagoieneko Lurralde Zatiko Plana, Bilboko superportua eta beste hainbat egitasmoren aurka protesta egiteko deitu dute manifestazioa. Horrez gainera, ekainaren 15erako, hurrengo domekarako, Udalatxera mendi ibilaldia antolatu dute.

Lazkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK
Teknologia berrienari esker, analisi biomekanikoak egiten ditugu. Zure oinendako kirol plantilla eta plantilla ortopediko erosoenak neurrira izango dituzu. Galdetu konpromiso barik.
Zure oinen erosotasuna, gure bermea.
Barrenkale 15-17
Tel./Faxa: 943 76 25 03
BERGARA

OÑATI

## Umeendako antzerkia egongo da domekan, Santa Ana antzokian

Laixan euskara elkarteak antolatuta, umeendako antzerki emanaldia egongo da domeka arratsaldean, Santa Ana antzokian, 17:30ean.

*Morgan pirata lapurretan* antzezlana ikusteko aukera izango dute neskamutikoek, Bilboko Zenbat Gara elkartearen eskutik. Musikaz eta abestiz jantzitako antzezlana da *Morgan pirata lapurretan*, umeendako saio ikusgarri eta dibertigarria.

Antzerki saio hori 3 eta 10 urte arteko umeendako da, eta hiru euro balioko du sarrerak. /A.I.

ANTZUOLA

## Erretiratuendako hitzaldiak eta irteerak antolatu dituzte

Datorren martitzenean, ekainaren 10ean, erretiratuendako hitzaldia egingo du Julian Bereziartua medikuak. Ahalik eta gazteen egoteko zer egin azalduko digu, Olaran etxean, 17:30ean.

Ekainaren 13an, berriz, Urkiolara irteera egingo dute. Izena emateko, ekainaren 7an eta 9an duzue aukera, erretiratuen egoitzan, 18:00etatik 19:00etara.

Hilaren 17an, azkenik, Juan Mari Garitano Nagusilan-eko kideak borondatezko lanaren gaineko hitzaldia egingo du, Olaranen, 18:00etan. /A.I.

ELGETA

## Peñalver eta Ibarluzea Lau t'erdiko finalerako sailkatu dira

Debagoieneko Kirol Txapelketa Zirkuituaren barruko Lau t'erdiko Pilota Txapelketa amaierara iritsi da, eta finala bihar, zapatua, goizean jokatuko da, Elgetako pilotalekuan.

Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partiduak jokatuko dira lehenengo, eta finala gero. Peñalver eta Ibarluzea elgetarrak finalerako sailkatu dira, eta Oruerasagasti eta Larrañaga izango dituzte aurkari. Partidua 12:00etan izango da, eta sari banaketa 13:00etarako iragarri dute. /I.A.



ANDER GILLENEA

ESKORIATZA

## Arizmendi Ikastolak antolatu duen VII. Ferixiek inguruko baserritarren eta artisauen topaleku bihurtuko du Eskoriatza bihar, zapatua

Arizmendi Ikastolak baserritarren eta artisauen VII. Ferixie antolatu du. Goizean goiz jarriko dituzte artisauek eta baserritarrek euren postuak bihar, zapatua, Eskoriatzan. 90 postutik gora egongo dira ikusgai: baserritarren elikagaiak, artisauen produktuak, baserriko tresneria… Postu horiez guztiez gainera, animalien txokoa eta umeen jolastokia ere jarriko dituzte. Aurten, animalia handiek ez dute lekurik izango, kaleetan lanak egiten dabiltza-eta, baina txakurrak, mapatxeak eta kanguruak, behintzat, egongo dira. Urtero moduan, Txorimalo Lehiaketa antolatu dute aurten ere, eta eguerdi aldera, Iñaki eta Inazio Perurena harri-jasotzaileek erakustaldia egingo dute. Feriari bukaera emateko, ostera, herri bazkaria egingo dute frontoian. /M.A.

ARRASATE

# Arrasateko sarrerako lan batzuk, bukatzear; laster berriak hasiko dira

Arrasate-Bergara-Arrasate errepidean aldaketak ikusiko ditugu laster. Hain justu ere, Arrasateko sarreran zubi berria estreinatuko dugu, egiten dabiltzan asfaltatze lanak bukatu eta gero.

Horretarako, orain arte egon den desbideraketa kendu, eta zubi berritik pasatzen hasiko dira ibilgailuak. Horren ostean, hesi gogor bat ipiniko dute, eta zubi horretatik industrialderaino dagoen bidea itxi egingo dute. Helburua hau da: gaur egun erabiltzen den zubitik egitea industrialde horretarako sarrera, hain zuzen ere.

**OINEZKOENDAKO BIDEA**

Hori guztiori egiten dabiltzan bitartean, oinezkoendako bidea ere egingo dute.

Orain arte, oinezkoek metalezko zubi batetik gurutzatzen zuten bidea, errepidearen gainetik. Gero, lanak hasi zirenean, zebrabidetik pasatzen hasi ziren. Orain, asmoa da errepide azpitik pasatzen den bide bat egitea oinezkoendako.

**URTEBETE LANEAN**

Horrela, lanen azken erremateak egin eta gero, ekainaren amaiera aldean bukatuko dute. Urtebetez ibili dira lanok egiten, baina gogoratu beharra dago Diputazioak lan gehiago dituela zehaztuta Zabaleta inguru horretarako. Kontua da Eibar-Gasteiz autobideak irteera izango duela Epelen, eta irteera hori Zabaletako biribilunearekin lotzea da asmoa. Hortaz, oraindik lan gehiago ikusiko ditugu han. /U.M.

**Zertzelada**

**Zubi berriko lanak bukatzen dituzten bitartean, oinezkoendako bidea egingo dute errepidearen azpitik, bidea gurutza ez dezaten**

BERGARA

# "Pertsekuzio sindikala" salatu du ELAk San Juango Iraundi enpresan

Bergarako ELAko 25 ordezkarik elkarretaratzea egin zuten eguaztenean Iraundi lantegiaren aurrean, "enpresako zuzendaritza ELAko ordezkariari egiten ari zaion pertsekuzioa" salatzeko. Sindikatuak esan du arazoen arrazoia izan dela ELAko ordezkariak zeharkako langileek antzinatasuna kobratzeko eskubidea aldarrikatzea; izan ere, "bere sailean lanik ez duela argudiatuz, beste lanpostu batera bidali dute, azalpen barik. Baina haren postuan beste langile bat jarri dute".

Iraundiko zuzendaritzak dio ELAk esandakoa "gezurra" dela eta gaia epaitegian dagoenez, "han ikusiko dela nor dabilen zuzen". /M.B.




M.B.

Bergarako ELAko 25 ordezkari inguruk egin zuten elkarretaratzea.

ARETXABALETA

## Hamar lagunek irabazi zuten Aretxarteko lehiaketan saria

Aretxabaletako merkatarien elkarteak, Aretxartek, udaberriko kanpainari zegozkion sariak banatu zituen eguaztenean, hilaren 4an, arratsaldean. Lehiaketan hamar lagun izan ziren sarituak, eta 60 euroko bono bana jaso zuten. Diru hori Aretxarte elkarteko edozein dendatan gastatzeko izango da.

Aretxarte elkartea orain dela hiru urte sortu zen eta herriko 41 dendak osatzen dute. Urte osoan barrena hainbat kanpaina egiten ditu. Horien artean, baina, udaberrikoa izan ohi da ezagunena. /A.L.

ARAMAIO

## Aramaioren gaineko webgunea estreinatu du Udalak

Aramaioren gaineko informazioa lortzeko bidea zabaldu dute teknologia berriak aprobetxatuz: webgunea. Helbidea *www.aramaio.org* da, eta edozeinek du sartzeko aukera. Euskarazko eta gaztelerazko bertsioak ditu, eta informazio orokorra landuko du. Hala, Udalaren inguruan sortutako berriak, herriaren gaineko informazioa, turismoarekin lotutakoa, agenda… egongo dira. Informazioa etengabe eguneratzen joango dira. Goienak eta Code & Syntax enpresek ekoiztu dute eta Nora Gonzálezek landu ditu edukiak. /U.M.

LEINTZ GATZAGA

## Guraso Elkarteak, GUREL-ek, Zarautzera txangoa antolatu du

Gatzagako Guraso Elkarteak (GUREL) antolatuta, herriko 25 umek eta gurasok aste bukaera Zarautzen pasatuko dute. Laugarren aldia da GURELek ekainaren lehenengo aste bukaeran irteera antolatzen duena: lehenengo bi urteetan Elantxobeko aterpetxean, iaz Getariako Askixun eta oraingoan, berriz, Zarautzeko Igerain aterpetxean hartuko dute leku. Gaurtik domekara bitartean aukera polita dute gatzagarrek Zarautz eta inguruak hobeto ezagutu eta, zelan ez, primeran pasatzeko. /A.G.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI) hitzarmenak sinatu ditu azken asteotan Debagoieneko bi enpresarekin: Goiena Komunikazio Zerbitzuekin eta Emun-ekin. Ibarreko beste enpresa askorekin hasitako lankidetza bideari eutsiz, komunikazio alorreko enpresetara zabaldu du orain lankidetza esparrua HUHEZIk. Jose Antonio Mendikute (Eibar, 61 urte, Ekonomia Zientzietan doktorea) dekanoak eman dizkigu lankidetza hitzarmen horien gaineko azalpenak.

ENEKO AZKARATE


AMAGOIA LASAGABASTER

# *Jose Antonio Mendikute*

MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa

# "Komunikazioaren alorrean espezialdutako teknikariak eskatzen dihardute enpresetan"

KOMUNIKAZIOA ENPRESAN

**"Enpresendako oso garrantzitsua da enpresaren erabakien berri langileei helaraztea; bada, informazio hori zelan komunikatu behar den ikasteko ikasgai berriak sortu ditugu"**

UNIBERTSITATEAREN AUTONOMIA

**"Gizartea aldatzen doa eta, gainera, ezberdina da han eta hemen. Hortaz, unibertsitateak gaitasuna behar du errealitatera hurreratzeko; autonomia handiagoa behar du"**

**Oraingo astean hitzarmena sinatu duzue Goienarekin eta joan den astean Emun enpresarekin. Zer dela eta hitzarmen horiek?**

Humanitateak-Enpresa karreraren helburu nagusia da, batik bat, pertsonen kudeaketa, eta, arlo horri dagokionez, ikasleek enpresaren oinarriak ikasten dituzte eta gai horretan sakontzen dute. Aurrerantzean, ordea, enpresetan komunikazioa lantzeari ere eman nahi diogu garrantzia. Hortaz, ibarreko komunikazio enpresekin harremanetan jarri gara, gure ikasleek enpresa horietan ere egin ditzaten praktikak. Bestela, hemengo eta inguruko 60 bat enpresarekin lankidetza hitzarmenak sinatuta ditugu praktikak egiteko eta, orain, beste esparru bat zabaltzen dugunez eta komunikazioa enpresetan ere landu nahi dugunez, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibarekin sinatu dugu hitzarmena.

**Baduzue beste hitzarmenik gogoan? Realarekin, beharbada?**

Bai, unibertsitate mailan elkarrizketatan gabiltza Realarekin, haien kirol teknikoen prestakuntzarako. Realak lankidetza hitzarmenak sinatuta dauzka 100 bat kirol elkarterekin, eta elkarte horietako teknikoek ere prestakuntza berezia behar dute. Guk lagundu egin diezaiokegu Realari kirol teknikari horien prestakuntzan. Gure eta Realaren arteko lankidetza hitzarmenaren nondik norakoak prestatzen gabiltza, eta laster egingo dugu sinadura ekitaldia. Horren gainean esan nahi dut aurten beste espezialitate bat abiatu dugula Irakasle Eskolan, heziketa fisikoa, eta hortik etorri dira Realarekiko harremanak. Etxarrirekin eta Olaberekin izan ditugu hainbat elkarrizketa, eta hitzarmena laster gauzatuko da.

**Aipatu duzu ikasgai berri bat sortu duzuela Humanitateak-Enpresa karreraren barruan. Komunikazioa Enpresan deitzen da. Zelan, ba, sortu duzue?**

Karreraren barruan, ikasgai berriak izango ditu aukeratzeko ikasleak. Esaterako, Ikus-entzunezko hizkuntza, Komunikazio planak, Internet aurreratua enpresan, Hizkuntza lantegiak… Horiek izango dira aukeratzekoak, eta egiten duen aukeraren arabera sakonduko du ildo batean edo bestean.

**Enpresa esparruan, komunikazio alorreko espezialisten geroago eta premia handiagoa dago?**

Bai. Azken urteotan, sumatu dugu komunikazioaren alorrean espezialdutako teknikariak dihardutela eskatzen enpresek, bai barne komunikazioa egiteko, baita kanpoko komunikazioa egiteko ere. Eta ikusi dugu Humanitateak-Enpresa karrera oso egokia dela alor horretako espezialistak hezteko. Horrela, bada, alor hori indartu egin dugu ikasgai berri horrekin. Batez ere, ikusten da enpresa barruan komunikazioa zelan kudeatu jakitea oso garrantzitsua dela. Izan ere, enpresendako, batez ere kooperatibetan, oso garrantzitsua da enpresaren erabakien berri langileei helaraztea. Informazio hori zelan komunikatu behar den ikasteko ikasgai berriak sortu ditugu.

**Kazetaritzarekin, Harreman Publikoekin… badu zerikusirik ikasgai horrek?**

Tira, kazetariena edo Harreman Publikoena beste profesio bat da. Gurea enpresa barrurako kontua da, enpresek langileekin komunikatzeko duten beharrei erantzuteko. Batez ere, barrura begira, baina baita kanpora begira ere.

**Zenbateraino da garrantzitsua, gaur egun, komunikazioa enpresetan?**

Batez ere gure inguruan, kooperatibetan, hainbat gai komunikatu behar zaio langileari. Enpresan zer ari den gertatzen zelan helarazi kolektiboari oso garrantzitsua da, batez ere pertsonak enpresarekin identifikatzeko.

**Kalean entzun da zurrumurru bat… Zera dio, Humanitateak-Enpresa karrera desagertu egingo dela. Horrela da?**

Gure unibertsitatean hainbat hausnarketa egiten ari gara gizartearen beharrei eta Unibertsitate Lege berriak eskatzen dituenei egokitzeko. Hortaz, hainbat karreraren berrikuspena egiten ari gara, baina ez dugu planteatu Humanitateak-Enpresak karrera kentzerik.

**Unibertsitate Lege berria aipatu duzu. Zelan eragingo dio lege horrek MUri?**

Estatu mailan bakarrik onartu da. Orain, Eusko Legebiltzarrak gurea landu eta onartuko du, eta ikusiko dugu zer dakarren. Edozelan ere, PPren Unibertsitate Legea baino gehiago hurreratuko da hemengoa gure errealitatera, gure gizartera.

**PPk Espainian onartu duen legearen gainean, zer balorazio egiten duzu?**

Okerrena da ez diola uzten autonomia handirik unibertsitateari, gehiegi zehaztuta datorrelako, eta ez diolako uzten unibertsitateari lan jarduna antolatzen. Uste dut kontrako joera dela egokiagoa; izan ere, gizartea aldatzen doa eta, gainera, gizartea ezberdina da han eta hemen. Hortaz, unibertsitateak ez badauka gaitasunik errealitatera hurreratzeko, jai daukagu. Unibertsitateak autonomia handiagoa behar du.

**Zelako eskaera dago Humanitateak-Enpresa karrerarena gure inguruan?**

Enpresek behar dituzte lan egiteko estilo berria erakusten duten teknikariak, langileekiko sentsibilitate handiagoa izango dutenak… Teknologia berriak aplika ditzakegu enpresetan, punta-puntako makinak eros ditzakegu… baina pertsona da enpresaren ardatza. Enpresa bat diferentea izateko, enpresa hori osatzen duten pertsonek, langileek, behar dute; izan diferenteak. Horretarako, zuzendaritzako pertsonek ere diferenteak izan behar dute, taldea egiten dakiten zuzendariak behar dira. Eta horixe da, hain justu ere, Humanitateak-Enpresak karreraren helburua: pertsona diferente eta berezi horiek prestatzea. Oinarri sozial ezberdina duten zuzendariak eta teknikariak hezi nahi ditugu.

**Zenbatek aurkitzen du lana Humanitateak-Enpresa amaitu eta gero?**

Orain arte, bi promozio atera dira hemendik. Lehenengo promozioen artean, %70ek berehala aurkitu zuten lana, eta horien artean, %60k, etxetik gertu. Edozelan ere, gure karrera berria da eta gizartean, enpresetan, errotu egin behar da. Enpresekin praktikak egiten ditugu, eta horien bidez ari da ezagutzera ematen karrera berri hori.

**Zenbat ikasle ari dira ikasturte honetan?**

850 bat. Kopuru polita da, baina espazio arazoak ditugu gaur egun, batez ere Mendeberri egitasmoa, hau da, beste estilo bateko hezkuntza mota, abian jartzeko gela gehiago behar ditugulako. Eleaniztasuna, konpetentzia… aintzat hartuta, eta ikaslea oinarri hartuta, beste hezkuntza eredu bat garatu nahi dugu Mendeberri proiektuarekin, eta horrek talde txikiagotan lan egitea eskatzen du. Horregatik, gure fakultateko eraikinean hainbat egokitzapen egin beharko ditugu.

# Zabalik



JON ALTUNA

## Jaiak datoz

**Ausarta izan behar da politikaz jarduteko. Harrigarria da askotan. Alderdi guztiak izan omen dira irabazle. Ez da galtzailerik. Ez al litzateke hobe botoa ematen dugunak izango bagina garaile? Herriak irabaziko balu, alegia; benetan denon nahiak ordezkatuko balira gero erakundeetan.**

**Demokrazia bera izan da galtzaile berriz. Herriarengan omen datza subiranotasuna, baina Euskal Herrian batzuen aukera balio ofizialik gabea izan da. Lehen ere, Grezian sortu zenetik, bidegabekeria asko egin dira bere izenean. Azkenaldian buruan darabilgun bat aipatzearren, demokratek bakarrik izan ditzaketela arma suntsitzaileak. Demokratek bakarrik erabiltzen dituzte.**

**Hemen, hauteskunde xelebreak izan dira. Eta horrek eragiten zidan tristura emaitzak arindu zuen. Bozka berezi hauetan alderdi guztientzat zen zinegotziren bat opari, EHk zituenak norbaitentzat izan behar baitzuten. Eta Bergaran, ia Euskal Herri osoan bezala, ordezkari horietako bat ere ez da izan nazionalista espainolentzat (eurak konstituzionalista direla diote), eta horrek poztu ninduen. Helburu berarekin bat egitean talde indartsua izango da abertzaleena.**

**Bergarako jaiak datoz, egunerokoak ahaztu eta ondo pasatzeko egunak. Bada zer ahaztua. Biolentziaren kontrakoa naiz, ez dut gogorkeriarik ikusi nahi, baina inguratuta nauka. Atentatua hemen, erasoa han, emakume jipoitu eta hilak, preso bahituak, gosea, etorkin gehiegi itota itsasoan, tortura, heriotza zigorra, bonbardaketak... Biolentzia eratorriko, ezta politika politetik ere. Arrazoi politikoak medio, jaietan, asko ez dira Bergaran izango. Eta horrek izorratzen nau. Dena dela, ondo pasatu!**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## Zuei, hazia erein zenutenoi

Donostia faxisten esku erori zen 1936ko irailaren lehenengoan, eta beldur zirrara sentitu zen Gipuzkoako herrialde osoan; adibidez, Irungo sutea bezalako gertakarietan. Oraindik Errepublikarekiko leialak ziren herrietan edozer gauza gerta zitekeelako. Herria defenditu edo uztea erabaki behar zuten herri bakoitzean. Debagoieneko herrietan ez defenditzea erabaki zuten.

Horrela, Debagoieneko herriak, Elgeta izan ezik, faxisten eskuetan erori ziren 1936ko irailaren 21etik 26 bitartean; lehenak Oñati eta Gatzaga eta azkenena Arrasate.

Orduko Bizkaira ihes egin zuen biztanleriaren erdiak baino gehiagok. Geratu zirenak geratu ziren uste zutelako ez zutela inolako errepresio arriskurik.

Baina iraila bukatu baino lehen, Arrasaten, Manuel Elorza eta Zesario Aginagalde baserritarrak hil zituzten frankistek, Ihesi Legea aplikatu ostean. Hil zituzten leku berean, Legarren, geratu ziren haien gorpuak bi egunez, jendeak ikusi eta eskarmentua har zezan.

Urrian eta azaroan Debagoieneko beste 54 herritar sartu zituzten kartzelan, eta gero fusilatu. Epaiketa barik, eta ia kasu guztietan, sinatu egin behar izan zuten aske geratzen zirela, hormara hiltzen eroan baino lehen. Osintxun Ambrosio Agirrek ihes egitea lortu zuen, lagunak hiltzen zituztela.

Fusilatuen artean, gehienak langileak, 4 abade, artzainak, baserritarrak eta politikan sartzen ez zirenak, sei emakume ere bai, Maria Areitio militante sozialisten ama izatearren, Florencia Olazagoitia militante sozialisten arreba (haurdun zegoen 5 hilabetekoa), Paula Mujika Emakume Abertzale Batzako partaidea, esan zuelako "abadeak ere ez dituzte hilko aurrekoa bezala", Emeteri Aranburuzabala 59 urtekoa eta 9 seme-alaben ama, politikan sartzen ez zena.

Salatariak Debagoienekoak izan ziren: alkateak, erregimen frankistaren aldeko apaizen txostenak, erreketeak, margariten eta falangearen inbidia eta ezin ikusia. Isun eta desterruekin jarraitu zuen errepresioak. Erori zenean Elgeta 1937ko apirilean, Pedro Telleria eta Francisca Lamarain senar-emazteak hil zituzten, eta alaba bortxatu, hiltzaileei aurre egin zietenean.

Milizianoak eta gudariak preso hartzen zituztenean, euren herrietako erreketeek hiltzen zituzten. Beste batzuk hiltzen zituzten sasi epaiketen ondoren, herrietako txostenaren laguntzaz eta inongo defentsarik gabe. Horrela, gutxienez 114 pertsona hil zituzten.

Urte batzuk, 66, pasatu eta gero, omenaldia egingo diegu Arrasateko Laubide plazan, ekainaren 8an, domeka eguerdian, Debagoieneko 9 udalen laguntzarekin.

Har ezazue gonbita, frankismoaren biktimek merezi duten omenaldira etortzeko.

DEBAGOIENEKO FUSILATUEN ETA DESAGERTUEN BATZORDEA
Debagoiena

## Ez gaitezen etsaiz konfunditu

Azken GOIENKARIAn zenbait idatzi dago Aralarri buruz, batzuk ez oso zuzenak. Edo guk gaizki esplikatzen ditugu gauzak edo gaizki ulertzen digu zenbaitek. Berriro saiatuko gara.

Hauteskunde aurretik, Bergara Aurrera-rekin izandako bileretan azaldu genituen gure irizpideak: legitimitate osoa aitortzen diogu bere ordezkaritzari, baina guk ezin legalitaterik eman. Hauteskundeen emaitzak ikusita, guri lau zinegotzi dagozkigu banaketa ofizialaren arabera, eta hiru banaketa zuzenaren arabera (gure laugarrena BAri dagokio). Guk nahita nahi ez hartu behar ditugu zinegotzi akreditazio guztiak ("por imperativo legal"), bestela betiko galtzen direlako hartu gabekoak, eta zerrenda guztia erre egiten delako, bihar edo etzi ordezkapenak egitea ezinezko bihurtuz. Eta hartutakoan, BArekin hizketatuko gara dagokien ordezkaritza hori nola eurenganatu ikusteko. Nola gauzatu hori praktikan? Denon aldetik borondate ona badago, aurkituko ditugu formulak, legalak ezin badira alegalak. Gu zabalik gaude arrazoizko irtenbideak bilatzeko. Esan beharrik ez, EAJ-EA eta EBrekin ere adostasunetara heltzen saiatu behar dela.

Hori bai, Plataformari zein AuBri eskatuko genieke etsaiz ez konfunditzeko. Une honetan ezker abertzalean bi adierazpen nagusi daude, AuB eta Aralar, eta jakin behar dugu, diferentzien gainetik, elkar errespetatzen eta zubiak eraikitzen. Batzuetan besterik badirudi ere, batzen gaituena askoz gehiago da aldentzen gaituena baino, eta elkarren beharra dugu herri hau ezkerretik eta abertzaletasunetik aurrera eramateko. Kanpainan zehar gure kartelak "Putreak" eta beste lora klase batzuekin apainduta agertu dira Bergaran eta beste herri askotan. Benetan eskertuko genizueke langintza horretan jardun dutenei kargu hartuko bazeniete eta berriz horrelakorik ez gertatzeko ahaleginak egingo bazenituzte. Gure eskua luzatuta dago.

Azkenik, herritarroi eskerrik beroena eman nahi dizuegu jaso dugun erantzunagatik. Ofizio honetan berriak gara eta bidea ez da erraza, baina saiatuko gara zuen borondate eta nahiari lan eta ilusioz erantzuten.

BERGARAKO ARALAR
Bergara

## Eskerrik asko zuen konfiantzagatik

Arrasateko EAJ-EA koalizioa osatzen dugunok eskerrak eman nahi dizkiegu azken hauteskundeetan guregan konfiantza jarri duten arrastear guztiei. Gure borondatea da iruzur ez egitea.

ARRASATEKO EAJ-EA
Arrasate

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# Eztabaida

Ekainaren 14an osatuko dira Hego Euskal Herrian, baita gure ibarrean ere, udalbatza berriak eta alkateak aukeratuko dituzte. Maiatzaren 25eko bozketetan indar politikoek lortutako ordezkaritzaren arabera osatuko dira udalbatzok. Ezohikoak izan dira, hala ere, azken hauteskundeak, besteak beste, gure ibarrean boto gehien lortu dituen bigarren indarraren botoak baliogabeak direlako legez. Plataformek lortutako ordezkaritza errespetatuko da udalbatzetan? Hona hemen gai horren gaineko iritzi bi.

## Herrietako plataformek parte hartu beharko lukete udalbatzarretan?

### *Herriaren borondatea edo Aznarren legea errespetatzea*



MARIJO ALTUBE
Oñatiko Ereitten plataformakoa

Maiatzaren 25eko hauteskunde antidemokratikoetan, Hego Euskal Herrian AuBk eta herrietako plataformek lortu genituen 160.000 bozka pasatxoak, baliogabeak izan ziren Espainiako legearen aurrean. Ez dira boto gutxi izan, aztertzen baditugu kanpainan zehar egon diren gure aurkako baldintza objektiboak. Finean, legal itxurako *putxerazo* batekin topo egin dugu berriro ere euskaldunok.

Inposaketa berri honek, gure herriaren etorkizunari begira egoera larria sor ditzake, baldin eta Euskal Herritik ez baditugu oinarrizko neurri zuzentzaile eta demokratikoak jartzen; ez badugu euskaldunok hautestontzietan, gure boto eskubidea erabiliz, irten den emaitza errespetatzen, emaitza horretatik D'Hont Legea aplikatuz irten den ordezkaritza errespetatzen. Gu geu horretarako prest gaude; baina, zein jarrera hartuko dute PNV, EA, Ezker Batua, Aralar... alderdi politikoek? Hor dago gakoa.

Egoerak guztion hausnarketa eta esfortzu berriak merezi ditu jarrera partidista eta pertsonalak alde batera utziz; ausardia eskatzen du, egungo zatiketa eta nahasketa politikoa gainditzuz. Soilik, herritarron borondatea errespetatzea eskatzen dugu, duintasun apur bat, denok kontziente baikara legez kanporatzearen ebazpenaren funtsa politikoa eta antidemokratikoa dela, herriaren borondatearen aurkakoa. Beraz, herri plataformek osatzen dugun ordezkariak udaletatik kanpo utziz, zein legitimitaterekin gobernatuko dute gure herria alderdi hauen ordezkariek? Sektore anitz eta garrantzitsua alde batera uzten eta berari dagokion ordezkaritza euren artean banatuz, milaka herritar eskubiderik gabe baztertuz?

Ez dugu itxaropen handirik, baina oraindik denboraz gabiltza. Guk ateak irekita ditugu. Dena den, udaletxe barruan era normalizatu batean lanean egonik edo kanpotik gure alde bozka eman duten sektore abertzale, ezkertiar, aurrerakoiei bidean jartzen dizkiguten oztopoak gaindituko ditugula ziurtatzen dizkiegu, ez dutela alferrikako ahalegina egin erakutsiz, bozka inoiz eman duten baliagarriena izango baita. Guztiok ezinbestekoak gara etorkizuneko Euskal Herria eraikitzeko, baita guztion ahotsa euskal instituzioetan ere.

**"Gure ordezkariak udaletatik kanpo utziz, zein legitimitaterekin gobernatuko dute gure herria?"**

### *Gainerako hutsuneen perspektiba galdu barik*



MARTIN CALVO
EB-IUko Batzarkidea

Legez kanporatua izan den ezker abertzaleak mamu erantzuleak ikusi ditu nonahi. Aitzitik, ez du beren jarduera politikoan inongo erantzukizunik sumatu, ez legez kanporatzeari aurre egiteko aukera legalak aurrez ikusterakoan, ezta ETAren estrategia ero eta hiltzailearengatik aldentzerako orduan ere. Ezker Batuak ez du inongo konplexurik horren aurrean; ez gara legez kanporatzearen erantzule politikoak eta ez diogu legez kanporatzeari azken hauteskundeen emaitzen arrakastarik zor.

Hala ere, oinarrizko eskubideak defendatu ditugu legez kanporatzeari aurre egiterakoan, eskubide guztiak, pertsona guztiak eta proiektu guztiak defendatzen dugun bezala. Euskal gizarteak ondo ulertu du Ezker Batuaren mezua: ez dugu hutsunerik nahi, denok baikara beharrezkoak euskal gizarte anitz, konplexu baina aberats honetan. Ez dugu ETAk uzten dituen hutsunerik nahi ondorioz, ez eta legez kanporatzeak ekarriko dituenik ere. Bada, lehenengo hutsuneak betetzea ezinezkoa izango da, erraildako ordezkariek ez baitute berreskuratuko inoiz eskubideen artean lehena: Bizitza eskubidea.

Baina badago bigarren hutsuneak betetzerik, hutsune existentzialak eta politikoak konparaezinak izan arren. Ezker Batuak irizpide nagusi bi aurrez ikusiko ditu legez kanporatzearen hutsuneei dagokienez. Batetik, azken hauteskundeetan Herri Plataformek gehiengo osoa lortu duten herrietan, Foru Aldundiek osatutako Udal Batzordeak sustatuz, eta bide batez, bertan legez kanporatuen ahotsa legalki entzutea bermatuz. Bestetik, eta gehiengo hori gauzatu ez den gainontzeko herri guztietan, Udal Gobernuetatik partehartzerako mekanismoak indartuz, tartean, Partehartze Zinegotziak edota Partehartze Aurrekontuak, alegia, denon partehartzerako baina bereziki legez kanporatuen partehartze zuzena bideratzeko mekanismoak liratekeenak.

Ez dezala inork pentsa, ordea, legez kanporatua izan den ezker abertzalearen sektore horrek baztertu ohi dituen gainontzeko hutsuneen perspektiba galduko dugunik. Honi koherentzia etikoa deitzen zaio eta hausnarketa politiko guztien aurretiko betebehar demokratikoa beharko luke izan.

**"Legez kanporatuen parte-hartze zuzena bideratzeko mekanismoak bultzatu beharko lirateke"**

**HURRENGO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

*Zelan konpondu herrietako zinema areto komertzialen gainbehera?*

# Gora eta Behera

**REALAK DAUKAN AUKERA HISTORIKOA LIGA IRABAZTEKO**

Espainiako Futbol Liga Txapelketa irabazteko aukera paregabea dauka Realak, orain dela 21 urte azken aldiz irabazi zuenetik. Athleticekoa naizen arren, asko poztuko nintzateke Realak irabaziko balu, eta are gehiago Athleticek azken jardunaldian Santiago Bernabeun irabaziko balu.

**HEMEN BIZI DUGUN EGOERA POLITIKO NEGARGARRIA**

Penagarria da Euskal Herrian bizi dugun egoera politikoa. Espainiatik jartzen dizkiguten traba eta debekuez gainera, hemengo alderdi politikoak ez dira gauza elkarrekin jarduteko, nork bere interesei bakarrik begiratzen dielako.



RITXI BRIÑAS
Aretxabaletako udaltzaina

# Besteek esana

*"Ganorazko epaileak izango bagenitu, dagoeneko ospatzen egongo ginateke, hamar puntu gehiago izango genituzke-eta"*

**SANDER WESTERVELD,**
Realeko atezaina / *Gara*

*"Garbi dagoena da ez dela berdin idatzi behar Interneterako eta papererako"*

**IBAN ARANTZABAL,**
Goienako Telematika zuzendaria / *Larrun*

*"Munduak behar du Estatu Palestinar independente eta baketsua"*

**GEORGE BUSH,**
Amerikako Estatu Batuetako presidentea / *Deia*

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA** Eneko Azkarate
**ERREDAKZIO KONTSEILUA** Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
**ADMINISTRAZIOA** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
**SAILETAKO ARDURADUNAK** Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
**PUBLIZITATEA** Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza
**PRODUKZIOA** Iban Arantzabal
**TESTUEN ZUZENKETA** Sergio Azkarate
**HARPIDETZA ETA BANAKETA** Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**LEHENDAKARIA** Estepan Plazaola
**ZUZENDARI NAGUSIA** Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Podiuma

# Xabi Camino |FUTBOLARIA|

**Aloña Mendi futbol taldean dihardu txikitatik oñatiar honek. Aurrelaria izanik, gol asko sartzen ditu eta, bere esanetan, buruz moldatzen da ondoen. Maiatzeko jokalari onena izan denez, Xabirekin egin dugu berba futbol jardunaren gainean.**

**Maiatzeko futbolari onena izendatzeak ilusiorik egin dizu?**
Urte osoko lanaren ostean honelako errekonozimendu bat jasotzeak beti ematen du poza.

**Txikitatik Oñatiko taldean jardun duzu. Zer dauka Aloña Mendik beste taldeek ez daukatena?**
Eskola arteko jokoetan futbolean hasi, eta gero Aloña Mendira pasatu nintzen; bertan ibili naiz, talde nagusira heldu arte. Oñatin, futbola era berezian bizi da. Partiduetara zenbat jende joaten den eta zein jarraitzaile fidelak ditugun ikusteak taldean segitzeko gogoa ematen dit. Hori da Aloña Mendin jarraitzeko sekretua: publikoaren beroa.

**Beti ibili izan zara aurreko postuetan?**
Ez; lehen, erdialdean ibiltzen nintzen, eta gazte mailako azken urtean pasatu nintzen aurrean jokatzera. Azken urtean, ia gol aukera guztiak aprobetxatu ditut, eta gol nahikoa sartu dudanez, oso pozik nago.

**Zer behar du aurrelari on batek?**
Zorteaz gain, une zehatzean leku konkretuan egotea da kontua. Bestalde, gehien balio duena jokalariak zelaira ateratzean gogoa jartzea da.


Xabi Camino futbolariak txikitatik dihardu Aloña Mendi taldean.

**"Partiduetara zenbat jende joaten den ikusteak Aloña Mendi taldean segitzeko gogoa ematen dit"**

**"Borrokalaria naiz, eta baloi guztiekin ahalik eta joko onena egiteko, daukadan dena jartzen ahalegintzen naiz"**

**Jokalari moduan, zelan definituko zenuke zeure burua?**
Borrokalaria naiz, eta taldekideek niregana bidaltzen dituzten baloi guztiekin ahalik eta jokorik onena egiteko, daukadan dena jartzen ahalegintzen naiz. Kalitatearen gainetik, gogoa ipintzen duten jokalari horietakoa naiz.

**Efektiboa ei zara jokoan. Zein da futbol zelaian zure arma eraginkorrena?**
Aireko jokoa, duda barik. Hankekin baino hobeto moldatzen naiz buruz. Aloña Mendiren jokoa airekoa izan da beti, eta ni ere, hainbeste urtean, talde berean jokatuta horretara ohitu naiz.

**Aloña Mendi azken txanpan irten da jaitsiera postuetatik. Zuk izan duzu zeresanik horretan, ezta?**
Taldekide guztiok egin dugu ahalegina, batez ere azken unean, ekipoa zulotik ateratzeko. Nik, aurrelari naizen aldetik, golak sartu ditut, hori da-eta, azken baten, nire lana. Horretan, hortaz, taldeari lagundu diodala esan dezaket. Denboraldi irregularra izan da, eta taldeak konfiantza apur bat galdu du zenbait momentutan. Zalantza asko izan dira; ez genekien maila honetan jarraitzerik izango genuen edo ez. Zaila izan da benetan, aurtengo denboraldiari aurre egitea. Baina azkenean, eutsi egin diogu mailari, eta hainbestean pozik egoteko moduan gaude.

**Datorren denboraldirako, zein asmo ditu Xabi Caminok, futbolari dagokionez?**
Aloña Mendi taldean segituko dudala uste dut; futbolean segitzen badut, behintzat, bai.

**Eta Aloña Mendiren asmoak, zeintzuk dira?**
Taldean izango da aldaketarik: batetik, entrenatzaile berria izango dugula jakinarazi digute; bestetik, hainbat taldekidek utzi egin dute taldea, eta gazteak pasatuko dira talde handira. Hortaz, Aloña Mendi gaztetuta etorriko da datorren denboraldian. Niretako, zerotik hastea bezalakoa izango da, entrenatzaile berria eta taldekideak ere, batzuk behintzat, desberdinak. Baina ilusioz ekingo diot datorren denboraldiari.

IRATI AGIRREAZALDEGI



## Aritz Berraondo, primeran

Aritz Berraondok primeran jokatu zuen astelehenean Tolosan, eta azken momentura arte zalantzan izan bagara ere, datorren denboraldian lehen mailan jokatuko du. Bigarren mailako finala Peñagarikanoren aurka galdu eta gero, bigarren aukera ondo baino hobeto aprobetxatzen jakin du antzuolarrak, Imazi 22-12 irabazita. Hurrengo denboraldirako, banakako txapelketarako ondo prestatzea da Aritz Berraondoren asmoa.

Kirolabur



### DEBAGOIENA/TRIATLOIA

Antxintxika taldeak eta Euskal Triatloi Federazioak antolatuta, Debagoieneko III. Triatloia jokatuko da bihar, zapatua. Urkuluko urtegian 1.500 metro egin beharko dituzte partaideek igerian. Gero, bizikletaz 40 kilometroko ibilbidea egingo dute; Urkulun hasi eta Arrasaten bukatuko da. Eta azken proba antxintxika hamar kilometroko lasterketa izango da. Euskadiko Triatloi Zirkuiturako puntuagarria den proba 16:00etan hasiko da eta sari banaketa azken korrikalaria helmugan sartu bezain azkar egingo dute. Antolatzaileek 200 lagun inguru espero dituzte; tartean debagoiendarrak ere egongo dira.

### OÑATI/TXIRRINDULARITZA

Orbea-Olarra taldeko Markel Irizar oñatiarrak erlojukontrako Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen elite mailan. Alegian jokatu zen, eta txirrindulariek 26,5 kilometroko ibilbidea egin zuten. Sailkapen orokorrean Irizar bigarren tokian geratu da, 23 urtez azpiko txapeldunarengandik 12 segundora helmugaratu zen-eta. Aurrez ere Euskadiko txapeldun izandakoa da Markel erlojukontrakoan. Denboraldian aurrera eginez, txirrindulari oñatiarrak Lleidako Itzulian eta Euskadiko Txapelketan parte hartzeko asmoa azaldu du; azken horretan bai erlojukontrakoan, baita errepideko proban ere.

### ARRASATE/PERTIKA JAUZIA

Real Sociedad taldean dihardduen Jonathan Pérez arrasatearra bigarren tokian sailkatu zen Madrilen jokatutako txapelketan. Pertika-jauzian dihardu Jonathan Pérezek, eta 4,70 metroko saltoa egin zuen. Irabazlearengandik 10 zentimetrora geratu zen. Ez da marka makala, kontuan hartuta Pérezek bizkarreko lesioa duela, pertika bat hautsi zitzaionean egindakoa. Bestalde, kirol berean lehian dihardduen Lander Errasti jauzilaria lehenengo postuan sailkatu zen Mendizorrotzan (Gasteiz); hark 2,30 metroko saltoa egin zuen.

### OÑATI/EUSKAL SELEKZIOA

Euskal Selekzioaren Eguna orain dela gutxi ospatu dute, Senperen. Oñatiraino ere heldu da selekzioaren aldeko aldarrikapena: Elkar-Hezi ikastetxeak antolatuta, Ritxi Mendiguren ESAITeko kideak, Koldo Irurtzun EHUko irakasleak eta Markel Irizar txirrindulariak mahai-ingurua egingo dute. Euskal Selekzioaren gainean jardungo dute mahai-inguruan. Hizketaldia ekainaren 10ean, martitzenean, izango da, 19:30ean, Oñatiko Santa Ana aretoan.

### DEBAGOIENA/UDAKO KIROL KANPAINA

Gipuzkoako foru Aldundiak Uda 2003 kirol kanpaina jarri du abian. Ikasturtean egindako kirolen osagarri modura, ikasleei beste kirol batzuetan jarduteko aukera eman nahi diete kanpaina horren bitartez. Kanpaina udarako dela kontuan hartuta, inguru naturalean egiteko jarduerak bultzatuko dituzte, besteak beste, uretako kirolak, eskalada, mendiko bizikleta... 6 eta 16 urte arteko ikasleek har dezakete parte ekintza horietan eta kirol saioak ekainaren 16an hasi eta irailaren 7an amaituko dira. Debagoieneko kirolzale gaztetxoek kanpainaren eta kirol jarduera bakoitzaren gaineko informazio zabalagoa herrietako kirol zerbitzuetan jaso ahal izango dute.

zuazola-larrañañatiko b.h. institutua

IKASLAN
BiHe
GOIESKOLA

IZENA AURRETIK EMATEKO EPEA ZABALIK

Zikloak

Ekainaren 2tik-ekainaren 11ra

ERDI MAILAKOAK:
- Mekanizazioa
- Makineria eta Linea-eroanbideen Instalazio eta Mantenimendua
- Natur Ingurunean Gorputz eta Kirol Ekintzak Gidatzea

GOI MAILAKOA:
- Gizarte eta Kultur Animazioa

943 78 21 50 • 943 78 12 68

www.onati.net • www.goieskola.net

Faxa.: 943 78 19 08 • E-posta: 013015aa@hezkuntza.net

EZ GALDU GU EZAGUTZEKO AUKERA!

Aniztasunarekin denok irabazten dugu




ARRASATEko
**Amaia Udal Antzokia**

***Ekainaren 7an***
*20:00*

Sarrera: 8 euro
Gazte txartelarekin 6 euro

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Kultura Saila




RENAULT Kontzesionarioa

**AUTOBERRI**

San Andres auzoa, 8 · Tel.: 943 712 472

ARRASATE

# JAIAK

Egubakoitza / 2003ko ekainaren 6a / PAZKOAK BERGARAN 2003 / GOIENKARIAren gehigarri berezia




# PAZKOAK BERGARAN

ANDER GILLENEA


TRADITION
Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel. 943 76 22 48

DIFFUSION
QUICK SERVICE
Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel. 945 13 47 26

DIFFUSION
Garbera ztro. kom., Garbera 1- 23 aretoa
20017 DONOSTIA • Tel. 943 39 45 86

DIFFUSION
Urbil ztro. kom., Asteasuain polig. (Txikierdi) - B7 aret.
20170 USURBIL • Tel. 943 36 08 17

DIFFUSION
Lakua ztro. kom., Wellington Dukea 6A - 05 aretoa
01010 GASTEIZ • Tel. 945 17 91 50



■ MUSIKA HOTSAK

# Estilo askotariko 30 musika talde Bergarako jaietan

ENEKO AZKARATE

**Musika da jaietako osagarri garrantzitsuenetako bat. Bergarako jaietan nonahi entzun ahal izango da musika, estilo askotariko musika, gainera. Bost gunetan banatuko da musika eskaintza.**

Udal Pilotalekuan gaur 22:30erako iragarri den Luar na Lubre talde folk galiziarraren emanaldiarekin hasi eta Egan taldeak martitzenean, Bitorianatxoren igoerarekin batera, alaituko duen dantzaldiarekin amaitu arte, ia 30 musika talde zuzenean ikusteko aukera egongo da Bergaran.

**GEHIENAK, DOAN**

Estilo askotariko musika taldeak izango dira: erromerietan dabiltzanak, heavyak, punk-rock, hardcore eta rock-and-roll tankerakoak, poperoagoak, *country* amerikarra egiten dutenak ere bai... Horrez gain, disko jartzaile ospetsuenak ere izango dira: technoa, housea, latinoa, hardcorea... denetik ipiniko dute. Gainera, emanaldi gehienak doan izango dira: toki itxietan antolatuko direnak izan ezik, beste guztiak.



**BIDEBERRIKO TXOSNEN GUNEA, MUSIKA ALTERNATIBOAREN TOPAGUNE**

Bideberriko txosnak gazteriaren topagune bihurtu dira azken urteotan. Hain ospetsu ez diren taldeen eta Bergarako taldeen musikarekin gozatzeko aukera egoten da han. Aurten ere, gaur hasi eta astelehenera bitartean, musika emanaldiak izango dira Bideberrin, gauez: gaur, esaterako, Niños mutantes, Painful, Fevers eta Dixie 600 taldeekin; zapatuan, Cool jerks, Rip KC, Bumer eta Black sheeps taldeekin; domekan, Fly Shit, Basque Country eta Juke Box-ekin; eta astelehenean, Sorkun, Kokein (argazkian), Eraso, Destruccion eta Goiko Rock-ekin. Bideberrin hiru txosna jarriko dituzte aurten. Horietako bat, gau eta egun, 24 orduz jarraian, egongo da zabalik, karpa moduko baten barruan egongo da-eta. Gaur eta bihar, ogitartekoak egongo dira salgai, txosnetako baten.

**Luar na Lubre talde galiziarraren folka eta ganbera musika gaur Udal Pilotalekuan**

**Joseina Etxeberriaren Disko Festa gaur gauerdian San Martin plazan**

**Supecools eta Undécimo Mandamiento bihar, zapatua, gaztetxean**

**Txosnen gunean 16 taldek jardungo dute: Niños Mutantes, Sorkun, Eraso...**



**DANTZALDIAK ETA DISKO FESTA...**

Bideberri gazteek gustuko duten musika entzuteko topagunea izango bada ere, San Martin plazan eta Espoloiko zumardian erromeriak eta *camp* dantzaldiak egongo dira. Nabarmentzekoa da, bestalde, San Martin plaza diskoteka erraldoi bihurtuko dela gaur, egubakoitza, gauerditik aurrera, Euskadi Gazteko Joseina Etxeberriak (argazkian) alaitutako Disko Festarekin. Horrez gain, Joselu Anaiak eta Egan taldeek alaitutako dantzaldiak iragarri dituzte astelehen eta martitzenerako, eta Nueva Etaparekin, *camp* dantzaldia. Hirurak San Martin plazan. Astelehen gauean, bestalde, Espaloian egongo da *camp* dantzaldia, Tarantellarekin.



**GAZTETXEAN, MUSIKA ETA ANTZERKIA**

Gaztetxea zabalik egongo da jaietako bost egunetan eta han ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte, batez ere gaur eta bihar: musikarekin lotutakoak gehienak, baina baita beste batzuk ere. Gaur, egubakoitza, gauean, hardcore eta rock-and-roll estiloetako musika entzuteko aukera egongo da Dj Belasekin. Zapatuan, berriz, Bergarako Supercools (argazkian) eta Bilboko Undecimo Mandamiento taldeekin kontzertua egongo da, 23:00etan hasita. Gero, rock-and-roll gaua Ramone disko jartzailearekin. Antzerkia ere egongo da: domekan, 19:30ean, *Mai en klowncierto*, Mai Gorostiagaren eskutik. Bestalde, drogaren kalitatea neurtzeko analisiak egingo dituzte gaur.



**JAM: SU TA GAR ETA TECHNO FESTA**

Jam aretoak bi musika emanaldi iragarri ditu aurtengo jaietarako, gaur eta bihar, hain justu. Gaur, egubakoitza, Su Ta Gar talde beteranoak (argazkian) azken diskoa aurkeztuko du. *Itsasoz beteriko mugetan* izenburua jarri diote eibartarrek zazpigarren disko horri. Aurrekoetan moduan, metal soinu gogorrak eta melodia ukituak dira nagusi disko horretan ere: 80ko hamarkadako heavya, hard balada lasaiagoak eta trash tankerako abestiak aurki ditzakegu. Su Ta Garrekin batera, Ehiztari Beltza Erromoko (Getxo) hirukotea izango da Jam-en gaur, 22:00etan hasita. Eta bihar techno festa iragarri dute, gauerditik aurrera, inguruko DJ onenekin.

■ EUSKADIKO ERREKORTADORE TXAPELKETA

# Ibarreko errekortadoreak bigantxen aurrean lehian

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Zezenzaleek badute euren zaletasunaz gozatzeko modurik Bergaran. Izan ere, Errekortadoreen Txapelketa izango da zapatuan. Bigantxen aurrean ausardia erakutsiko dute ibarreko, Nafarroako eta Zaragozako errekortadoreek.**

**BEDERATZI BIKOTE LEHIAN**

Euskadiko Errekortadoreen Txapelketa jokatuko da Bergaran bihar, zapatua, arratsaldeko seietan hasita. Laugarren aldia da aurtengoa, eta guztira, bederatzi bikotek jardungo dute nor baino nor gehiago zezen aurrean lehian. Zapatuko saioan, Nafarroako, Zaragozako eta Gipuzkoako errekortadoreek erakutsiko dute euren abilezia eta, tartean, debagoiendarrik ez da faltako: lau bergarar, arrasatear bat eta bi aretxabaletar, hain zuzen ere.

Iker Agirre eta Unai Arana bergararrek bikotea osatuko dute; Bergarako Mikel Uribesalgo Arrasateko Blas Cruzekin arituko da, eta David Maestre bergararrak lehengusu Emilio Modroño izango du lagun. Eta Hodei Lazpita eta Egoitz Garciaetxabe aretxabaletarrek ere elkarrekin egingo dute erakustaldia, zapatu arratsaldean.

Bikote bakoitzak lau minutuko tartea izango du lana txukun egiteko. Lehenengo, bigantxei errekorteak egiten ahaleginduko dira, eta hurrengo eginbeharra adarretan ahalik eta uztai gehien sartzea izango da.

Errekortadoreen lana epaitzeko honako laukotea izango da zezen-plazan adi-adi begira: Iñaki Ganuza nafarra eta Juanjo Arrieta, Juan Luis Bikuña eta Iñigo Almortza bergararrak. Errekorte onena zein den erabakitzeko, errekortea ikusgarria izan den begiratzen dute, batetik, eta bestetik, errekortadoreak bigantxaren aurrean zenbat denbora ematen duen hartzen dute kontuan. Ikusgarritasun hori lortzeko, txapelketetan errekortadoreek bigantxen gainetik salto egiten dute, eta errekorteak bizkarretik egiten ahalegintzen dira.

Nafarroan zezenetarako dagoen zaletasunarengatik-edo, errekortadore nafarrak dira txapelketarako faborito. Baina Zaragozakoak eta etxean jokatzen duten bergararrak ere ez dira atzean geratuko.

**Lau bergarar, arrasatear bat eta bi aretxabaletar daude partaideen artean**

**Bikote bakoitzak lau minutu egingo ditu bigantxaren aurrean**

**Partaideek egin beharreko lan bat bigantxaren adarretan uztaiak sartzea izango da**

**Errekortadore batzuek bigantxen gainetik salto ikusgarriak egiten dituzte**

**Datorren urtean Euskadiko Txapelketa ligaxka eran antolatzea aztertzen ari dira**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

Euskadiko Txapelketa izango da zapatuan jokoan. Egun bakarrean neurtzen dute euren abildadea errekortadoreek, eta ikuskizuna gehiegi ez luzatzeko, partaide kopurua mugatu egin dute antolatzaileek. Hala ere, beste errekortadore askok agertu du Bergarara etortzeko nahia, besteak beste, Lodosakoek eta Kalagorri aldekoek.

Eskaerak hainbeste izanik, aurrerantzean Euskadiko Txapelketa ligaxka eran jokatzeko asmoa aztertzen dihardute antolatzaileek. Horrela, Elgoibarren, Arrasaten, Tolosan eta Bergaran egingo dituzte errekortadoreen saioak.

Ibarreko zezenzaleek, beraz, Bergaran dute errekortadoreekin hitzordua zapatuan.



**LAU BERGARAR, HERRIKO ZEZEN-PLAZAN**

Bergararrek iaz saririk jaso ez bazuten ere, 2001eko txapelketan errekorte artistikoenaren saria eman zieten David Maestreri eta Mikel Uribesalgori. Uribesalgok Blas Cruz arrasatearrarekin osatuko du aurten bikotea. Cruzek maiatzaren 24an Elgoibarren egindako erakustaldian susto txiki bat izan bazuen ere, ikusleak gustura geratu ziren bere lanarekin, eta Bergaran ere abil arituko dela uste dute antolatzaileek. Maestre, berriz, lehengusu Emilio Modroñorekin arituko da. Unai Aranak uztaien proba irabazi zuen orduan, eta oraingoan Iker Agirrerekin egingo du errekorte saioa.



**EGOITZ GARCIAETXABE ETA HODEI LAZPITA, LEHEN ALDIZ TXAPELKETAN**

Aretxabaletarrak dira Egoitz Garciaetxabe eta Hodei Lazpita, eta bikotea osatuz txapelketa baten parte hartzen duten lehen aldia izango da Bergarakoa. Errekortadore moduan inguruko herrietan eta, abuztuan, Nafarroan ibiltzen dira bi mutil gazte horiek, baina inoiz ez dira lehian aritu aurrez. Azken bi asteburu hauetan, Tolosan eta Elgoibarren egin dituzte entrenamenduak eta, txapelketarako zein asmo duten galdetuta, zera erantzun digute: "Parte hartzea baino ez da gure asmoa; probatzera joango gara eta uztaiak adarretan sartzen egingo dugu ahalegin handiena".

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko ekainaren 6a

# JAIETAKO E

## Egubakoitza 6

**20:00** Jaiak hasiko dira, eta hori jakinarazteko, ETXAFUEGOAK jaurtiko dituzte eta BITORIANATXO jaitsiko dute.
**20:00** Udal Musika Bandaren KALEJIRA egongo da, kaleak alaitzeko.
**20:00** Matxiategin BARRAKAK irekiko dituzte.
**20:00** Bideberrito TXOSNAK zabalduko dituzte.
**20:30-21:30** TXARANGA ibiliko da kaleetan barrena.
**22:30** Luar na Lubre galiziar folk taldeak KONTZERTUA eskainiko du Udal Pilotalekuan, ganbera musikarekin eta Rosa Cedrónen ahotsarekin osatua.
**00:00** ROCK KONTZERTUA egongo da Niños Mutantes, Painful, Fevers eta Dixie 900 taldeen eskutik, Bideberrin.
**00:00** Joseina Etxeberria disko jartzaileak DISKO FESTA girotuko du San Martin plazan.



## Zapatua 7

**09:00** XXIII. Haur eta Gazteen PLASTIKA SARIKETA, Beart taldeak antolatuta. Beart-en egoitzan (Bolu kalea, 49) egingo dute.
**10:00** DIANA joko dute auzo guztietan. Hori egin eta gero, San Martin plazan elkartuko dira, eta honako emanaldiak egingo dituzte: Bolun TXISTULARI BANDA egongo da; Oxirondon GAITARIEK egingo dute emanaldia; eta Labegaraietan Iosu eta Iokin SOINU JOTZAILEAK egongo dira.
Mizpirualdera bisita egingo dute gero gaitariek eta txistulariek.
**11:30** Elkarteen arteko SUKALDARITZA LEHIAKETA. Bakailaoa pil-pilean prestatuko dute elkarteek San Martin plazan, trikitilariek alaituta.
**13:00** XXIII. Haur eta Gazteen Plastika Sariketako SARI BANAKETA. Beart artisten elkartearen egoitzan (Bolu kalea 49) izango da ekitaldia.
**16:30** PILOTA PARTIDU interesgarriak Udal Pilotalekuan.
**17:00** KALE ANTZERKIA Xabier Maria Munibe plazan.
**17:45** BONBA JAPONIARRAK egongo dira umeendako, San Martin plazan.
**18:00** ERREKORTADOREEN Euskadiko IV. TXAPELKETA jokatuko da zezen-plazan, Elgoibarko dultzaineroek girotuta.
**18:30** ERRALDOIEN ALARDEA, Ordiziako, Irungo eta Bergarako erraldoiek, kilikiek eta buruhandiek hartuko dute parte, eta Udal Txistulari Bandak eta Kobok Bergarako dultzainero taldeak girotuko dute ekitaldia. Honako ibilbidea egingo dute: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili, Ibargarai, Fraiskozuri plaza, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin plaza.
**23:30** ROCK KONTZERTUA eskainiko dute Cool jerks, RIP KC, Bumer eta Black Sheeps taldeek Bideberrin.
**23:30** CAMP DANTZALDIA egongo da San Martin plazan, Nueva Etapa orkestrak girotuta.

## Domeka 8

**08:00** SOKAMUTURRA egongo da San Martin plazan, Elgoibarko dultzaineroek alaituta. Segidan, dultzaineroek KALEJIRA egingo dute, San Martin plazatik zezen-plazaraino.
**09:00** Lehen ENTZIERROA egongo da. Ibilbidea honakoa izango da: Gaspar jatetxeko garajea, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Ramon M. Lili eta zezen-plaza.
Segidan, ENBOLATUAK egongo dira. Horren ondoren, Udal Txistulari Bandak ALBORADA egingo du.
**10:00** TXIRRINDULARI LASTERKETA jokatuko da: 23 urtez azpikoendako eta elitekoendako LXVIII. Mendekoste saria, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. San Lorentzo auzotik irtengo da lasterketa.
**11:00** MEZA NAGUSIA San Pedro elizan. Udal Korporazioak hartuko du parte, Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak lagunduta.



**11:30** 15 urtetik beherako bikoteendako XXVI. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETAko kanporaketak jokatuko dira San Martin plazan. Lehenengo hamabi bikoteak sailkatuko dira.
**12:30** Udal Musika Bandak Mendekoste Domekako KONTZERTU NAGUSIA eskainiko du, Espoloian, Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean.
*Egitaraua*:
*Lagartijilla*. Pasodoblea
J. Martín
*La forza del destino*. Obertura
G. Verdi
*Gero bat gaurdanik*. 2003ko Korrika
B. Mendizabal, A. Gz. Chirlaque
*La Dolores*. Jota handia
T. Bretón
*Nostradamus*. Fantasia
O.M. Schwarz
*Take the A-Train*. Big banda
B. Strayhorn
**13:00** Nafarroako JOTEROAK ibiliko dira herrian barrena.
**17:30** KALEJIRA ibiliko da herrian



**SUKALDARITZA LEHIAKETA**
Herriko 13 gastronomia elkartek bakailaoa pil-pilean ea zeinek hobeto egin lehiatuko dira. Irabazlearendako, txapela eta trofeoa.
**Non: San Martin plazan**
**Noiz: zapatua, 7 / 11:30**



**ERRALDOIEN ALARDEA**
Aurten Ordiziako eta Irungo erraldoi, kiliki eta buruhandiek egingo diete lagun herriko ei. Trikitilariek eta dultzaineroek girotuko dute ekintza.
**Non: San Martin plazatik abiatuta**
**Noiz: Zapatua, 7 / 18:00**



**BARRAKAK**
Urtero moduan, barrakagunea egongo da Matxiategin. Ekainaren 6an, egubakoitza, zabalduko dute gunea, 20:00etan, jaiegun guztietarako.
**Non: Matxiategin**
**Noiz: Egunero**



**ZEZEN FESTA**
Zezenekin egongo diren ekintzen artean, garrantzitsuena hauxe izango da, Errenteriako, Nafarroako eta Azpeitiko nobillero eta burtzikariekin.
**Non: Zezen plazan**
**Noiz: Domeka, 8 / 18:00**

Geyser GASTECH S.A.
San Juan auzoa z/g 151 Posta kodea
BERGARA • 943 76 90 04
**PROFESIONALTASUNA, GAS BEROGAILUEN EKOIZPEGINTZAN**
**1997ko irailean, Bergaran Geyser Gastech Teknologi eta Ekoizpen Zentrua sortu zen. Gure bezero, lankide eta eskualde honetako jende oro agurtu nahi ditugu.**


# GITARAUA

barrena, San Martin plazatik abiatu eta zezen-plazaraino. Zumarragako musika bandak eta Elgoibarko dultzaineroek girotuko dute ekitaldia. Geldialdia egingo dute Lasa zaharrean.
**18:00** ZEZEN FESTA Salamancako López Chávezen ganaduekin, Betizu zezenzale elkarteak antolatuta. Honako nobilleroek hartuko dute parte zezenketan: Ekaitz Rodríguezek (Errenteria) eta Anton Osések (Nafarroa); Igor Etxaniz *Kinttela* (Azpeitia) izango da burtzikaria. Musika bandak eta dultzaineroek alaituko dute giroa. Festa bukatu eta gero, DULTZAINEROEK kalejira egingo dute herriko kaleetatik.
**19:30** *Elvis, joan adi!* izenburuko KALE ANTZERKIA egingo du Trapu Zaharra taldeak Xabier Maria Munibe plazan.
**23:00** Joselu Anaiek girotutako ERROMERIA egongo da San Martin plazan.
**23:00** Fly shit, Basque Country eta Juke Box taldeen ROCK KONTZERTUA egongo da Bideberriko gunean.

## Astelehena 9

**08:30** KALEJIRA izango da Los Incansables txarangaren eskutik, entzierroen ibilbidetik zezen-plazaraino.
**09:00** Bigarren ENTZIERROA egingo dute. Ibilbidea honakoa izango da: Gaspar jatetxea, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili eta zezen-plaza. Segidan, ENBOLATUAK egongo dira. Los Incansables TXARANGAK alaituko du giroa.
**10:30** Ollagorra elkarteak antolatutako PLATER TIROKETA, Gorlako Irubide zelaian.
**11:30-14:00** Ipintza II-ko patioan umeendako JOLASPARKEA egongo da zabalik, *superjumper*, *kart*-ak, gaztelu puzgarriak eta ondo pasatzeko beste hainbat aukerarekin.
**11:30** Udal Musika Bandaren KALEJIRA egongo da.
**12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA egongo da Espoloian. Alfredo González Chirlaque izango da zuzendaria.
*Egitaraua*:
*Ibarratik Tolosara*. Euskal Martxa
A. Gz. Chirlaque
*Gulliver's Travel*. Suitea
B. Appermont
*Alma de Dios*. Zartzuelako selekzioa
J. Serrano
*The lion king*. Soinu banda
E.John - H. Zimmer
*Bergarako Ereserkia*
A. Gz. Chirlaque
**17:00-20:00** Umeendako JOLASPARKEAren jarraipena egongo da Ipintza II Institutuko patioan.



**18:00** Behiekin JOLASAK egongo dira zezen-plazan, Los Incansables txarangak lagunduta. Gero, txarangak KALEJIRA egingo du, herriko bazter guztiak alaitzeko.
**23:00** ROCK KONTZERTUA egongo da Bideberrin. Honako taldeek joko dute: Sorkun, Kokein, Eraso, Destrucción eta Goiko Rock-ek.
**23:00** Tarantella orkestrarekin DANTZALDIA egongo da Espoloian.

## Martitzena 10

**08:30** KALEJIRA egongo da Los Incansables txarangak alaituta, entzierroaren bidetik zezen-plazaraino.
**09:00** Hirugarren ENTZIERROA egingo dute. Ibilbidea hauxe izango da: Gaspar jatetxea, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili eta zezen-plaza. Segidan, ENBOLATUAK egongo dira.
**11:00-20:00** Mendekosteetako Kartel Lehiaketara aurkeztu ziren KARTELEN ERAKUSKETA egongo da udaletxeko arkupeetan.
**11:30** Egunean, kaleak alaituko dituzte Xafre eta Zaharra eta Iosu eta Iokin bikote TRIKITILARIEK eta Los Incansables txarangak.
**11:30-13:30** HERRI TRENA, Fraiskozuri plazatik abiatuta.
**12:30** HERRI KIROLEN ERAKUSTALDIA egongo da San Martin plazan. Jose Antonio Gisasola *Zelai* eta Miren Urkiola harri-jasotzaileak, Fausto eta Mugerza aizkolariak… egongo dira.



**13:30** KALEJIRA egingo dute trikitilariek, San Martin plazatik abiatuta.
**14:30** HERRI BAZKARIA egongo da San Martin plazan, Jardun elkarteak, Xamatz dantza taldeak eta Txosna batzordeak antolatuta.
**16:00** Bazkalondoan, JOKOAK eta Iraunkorra txarangaren emanaldia.
**16:30** PILOTA PARTIDU interesgarriak jokatuko dituzte Udal Pilotalekuan.
**17:00-21:00** HERRI TRENAren bira, Fraiskozuri plazatik irtenda.
**18:00** Txekor eta behi ENBOLATUAK, koadrilendako, zezen-plazan, Los Incansables txarangak alaituta. Horren ondoren, txarangaren KALEJIRA egongo da.
**20:00-21:00 eta 22:30etik aurrera** DANTZALDIA egongo da Egan taldearekin San Martin plazan.
**24:00** San Martin plazan elkartzeko aukera izango dute herritar guztiek, BITORIANATXOREN IGOERA ikusteko.



### JOLASPARKEA

*Superjumper*, *kart*-ak, gaztelu puzgarriak… izango dira, besteak beste, umeendako jolasparkeak eskainiko dituen entretenimendurako aukerak.

**Non: Ipintza II Institutuan**
**Noiz: Astelehena, 9 / 11:30, 17:00**



### ROCK KONTZERTUAK

Jaietako gau gehienetan izango dugu zuzeneko rock emanaldiren batekin gozatzeko aukera, Bideberrin. Egubakoitzean, hilak 6, Niños mutantes, Painful, Fevers eta Dixie 900 taldeek eskainiko dute kontzertua, gauerdian; zapatuan, hilak 7, Cool jerks, RIP KC, Bumer eta Black Sheeps taldeek egingo dute emanaldia; domekan, Fly Shit, Basque Country eta Juke Box taldeek girotuko dute gaua, eta astelehenean, berriz, Sorkun, Kokein, Eraso, Destrucción eta Goiko rock taldeen txanda izango da. Euskal Herrian egiten den rockaren jarraitzaileek beste hitzordu bat dute jaietan, baina hura Jam aretoan izango da, ekainaren 6an, egubakoitza. Izan ere, Su ta Gar taldeak azken diskoa aurkeztuko du, 22:00etan. Ehiztari Beltza taldeak egingo dio lagun kontzertuan.

**Non: Bideberrin eta Jam aretoan**
**Noiz: gauero / 22:00, 23:00, 00:00**



### HERRI BAZKARIA

Jaiei bukaera ona emateko, azken egunean mahaiaren bueltan elkartzeko aukera izango dute nahi duten herritar guztiek.

**Non: San Martin plazan**
**Noiz: Martitzena, 10 / 14:30**

Tratamientos Térmicos TTT,S.A.
GRUPO TTT
Elgeta bidea, 130 P.K. 20570 BERGARA. Gipuzkoa
Tel.: 943 76 48 44 Faxa: 943 76 50 47
e-maila: ttt@grupottt.com web: www.grupottt.com
JAI **ZORIONTSUAK**
IZAN DITZAZUELA
**BERGARAR GUZTIOK**

■ PILOTA JAIALDIA

# Egun bakarreko jaialdia pilota txapelketaren ordez

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Aurten ez da Mendekoste jaietan pilota txapelketarik izango Bergaran. Enpresek torneorik ez antolatzeko erabakia hartu dute, eta pilota zale bergararrek egun bakarrean izango dute gustuko kirolaz gozatzeko aukera. Martitzenean, goi mailako hamabi pilotarik jardungo dute, eskuz binaka, Udal Pilotalekuan.**

**GAINBEHERA**

Pilotak gora eta gora egiten dihardu azkenaldian. Gero eta zale gehiagok betetzen ditu frontoiak, eta gehiago dira egunean-egunean antolatzen dituzten pilota partiduak ere.

Baina hori leku batzuetan besterik ez da gertatzen. Izan ere, badirudi Bergaran pilotak behera egin duela azken urte hauetan. Garai batean, sarritan ikusten ziren goi mailako pilotariak Udal Pilotalekuan sotamanoz zein boleaz pilotari gogor emanez, txokoan dejadak eginez... baina, gaur egun, apenas mantentzen dira egun berezietako partiduak.

Gainera, horiek ere desagertzeko zorian ote dauden susmoa hartu daiteke. Aurten, behintzat, programan hala iragarri badute ere, Mendekoste jaietan ez da ohiko pilota txapelketarik izango. Enpresen eta Udalaren artean ez da akordiorik lortu, eta egun bakarreko pilota jaialdia baino ez dute antolatu.

Aurrez ere izan da inoiz tira birarik Udalaren eta pilota enpresen artean. Otsailean, eskuz binakako txapelketaren finalerdietako azken partidua Bergaran jokatzeko eskaria egin zioten enpresek Bergarako Udalari. Finala ez zen azkenean Bergaran jokatu, eta enpresek bestelako argudioak eman bazituzten ere, arrazoia ekonomikoa izan zela esan zuten Udaleko ordezkariek. Izan ere, enpresek dirua eskatu zuten partidua Bergaran jokatzearren. Aurten Mendekoste jaietan txapelketarik ez jokatzearen arrazoia orduko tira birak izan daitezke, motibo ekonomikoak, hain zuzen ere; hala uste du Bergarako alkateak. Aspe enpresakoek "beste konpromiso batzuk" dituztela esan, eta eurek partiduak ez dituztela "dirua galtzeko" antolatzen ere gaineratu dute.

Arrazoien bila aritzea alferrikakoa da, ordea. Izan ere, honek ondorio bat baino ez du ekarri: aurten pilota jaialdi bakarra izango da jaietan, zaleen kalterako.



ANDER GILLENEA

Gai mailako hamabi pilotarik eskuz binakako hiru partidu jokatuko dituzte martitzeneko jaialdian.

**SARREREN ERRESERBA**

Pilota jaialdirako sarrerak aurrez erosterik ez da izango; bai, ordea, erreserba egiteko aukera. Interesatuek 661 25 90 09 telefonora deituta, partiduetarako sarrerak gordeko dizkiete.

Eskariak asko badira, erreserbatutako sarrerak goizez ematen hasiko dira, txarteldegikoei arratsaldean lana ez pilatzeko. Bestela, berriz, arratsaldeko 15:30ean irekiko da takila eta bertan erosiko dituzte pilota zaleek sarrerak. Partiduak 17:00etan hasiko dira.

**PILOTA JAIALDIA**
**Martitzena 10, 17:00**
**Udal Pilotalekua**

Etxaniz-Goñi III.a
Esain-Otxandorena

Titin III.a-Apeztegia
Olaizola I.a-Zearra

Saralegi-Medina
Del Rey-Aukin

**VICTORIANO GALLASTEGI**
BERGARAKO ALKATEA

Udalak pilota enpresen esku jarri du pilotalekua doan, urtero bezala, jaietarako txapelketa antolatzeko. Baina enpresek partiduak egun bakarrean jartzeko asmoa azaldu dute: martitzenean, hain zuzen ere. Jende asko joaten da frontoira egun horretan, eta hori enpresek badakite. Baliteke diru kontuak izatea txapelketa ez antolatzearen arrazoia.

Pilotak estimazio handia du herrian, eta zaleak oso haserre daude, aurrez ez dakitelako ziur zein pilota partidu izango den jaietan".

**PATXI MUTILOA**
ASPEKO GERENTEA

Enpresak beste konpromiso batzuk ditu asteburuRako: besteak beste, atzeratu ziren buruz buruko txapelketako final erdiak. Beraz, Bergaran txapelketa egitea ezinezkoa zen. Gure asmoa jaietarako bi pilota jaialdi antolatzea izan da, bata astelehenean eta martitzenean bestea. Horretarako, Udalari dirulaguntza eskatu genion, baina ezezkoa eman zigun, eta gu dirua galtzeko prest ez gaudenez, egun bakarreko jaialdia egingo dugu eta modu horretan aurrekontua beteko dugula uste dut".

**JOKIN ETXANIZ**
PILOTARIA

Ikusleendako eta hainbeste urtean jaietan pilota partiduak jarraitzera joan izan direnendako, pena handia da aurten txapelketarik ez izatea. Lau egunetan ikuskizunak izatetik egun bakarrean pilotaz gozatzeko aukera izatera alde handia dago.

Hala ere, enpresek egun bakarreko jaialdia antolatzeko hartu duten erabakia normala dela uste dut. Izan ere, beste partidu eta txapelketa batzuk daude. Jendea frontoira goi mailako pilotariak ekarri ezean ez da joaten; beraz, jarraitzailerik ezean zertarako jarri partiduak".

**AGUSTIN IÑARRA**
PILOTAZALEA

Enpresek nahi dutena egin dutela uste dut. Udalarekin izandako tira birak direla-eta, Bergara zigortu nahi izan dute. Final erdiak jarri dituzte arrazoi moduan, baina inoiz finala ere jokatu izan da Bergarako txapelketarekin batera, eta hori aitzakia merke bat besterik ez dela iruditzen zait.

Bergarako jaiek pilota txapelketarik gabe asko galduko dute, arratsaldetan beste ezer askorik ez baita egoten. Galera gehien igarriko dutenak tabernariak izango dira; batez ere, beheko aldekoak".




# BERGARAKO JAIAK GOIENA TELEBISTAN

## Albistegia, dantza txapelketa, 'Jaiak 2003'...

**Martitzena 10**
14:30, 15:30, 20:00 eta 22:00
'Berriak' berezia, Bergarako San Martin plazatik.

**Martitzena 10**
21:00
Jaietako ekitaldien gaineko saio berezia: 'Bergarako Jaiak 2003'.

**Eguaztena 11**
20:30
Euskadiko Dantza Solteko Txapelketa, 14 urtez azpikoendako.

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko duzu!*

■ **LUAR NA LUBRE** / GAUR, EGUBAKOITZA, EKAINAK 6, BERGARAKO PILOTALEKUAN, 22:30EAN

# Galiziako musikarekin eta arazoekin konpromisoa

LEIRE KORTABARRIA

**Zeltiar doinuek protagonismo handia izango dute aurtengo jaietako musika eskaintzan, Luar na Lubre talde galiziarraren eskutik. Bergarako Udal Pilotalekuan egingo dute emanaldia gaur, egubakoitza, 22:30ean.**



GIN & TONIC MUSIKA EKOIZPENAK

**Galiziako folk berriaren eredu nagusia da Luar na Lubre taldea.**

Galiziako folkak bere garai onena bizi du. Orain dela urte batzuetatik hona indarberritu egin da, talde eta artista berriekin. Berpizkunde horren erdian egon den talde bat aipatu beharko bagenu, Luar na Lubre izan beharko litzateke hori; hain zuzen ere, Bergarako jaietan entzuteko aukera izango dugun taldea. Gurean lehen aldia izango dute; ez, hala ere, Euskal Herrian, eta taldearen sortzailea Bieito Romerok diosku: "Etxean bezala hartu izan gaituzte beti Euskal Herrian; itsaso berberak ematen digun konexioa dugu. Jendeak oso ondo hartzen du gure musika, eta oraingoan ere harrera ona espero dugu".

Mike Oldfield musikagile britainiar ezaguna Luar na Lubre taldearen doinuekin maitemindu zen, eta lankidetza egitea eskatu zien. Horren fruitu izan zen 1992an taldeak Oldfield-endako egindako kontzertua eta bakarlariak egin duen haien abesti baten moldaketa, esate baterako. Horrek bultzada handia eman zion Luar na Lubreren musikaren hedapenari; edozelan ere, taldearen ibilbidea askoz lehenagotik dator.

#### ABESTI TRADIZIONALAK IKERTU

Luar na Lubre 1986an sortu zen, Coruñan. Hasiera-hasieratik oso argi zuten partaideek zein izango zen euren filosofia, bai galiziar, bai eta artista moduan: "Gure taldearen helburua da Galizian bere kultura, tradizio eta musika izan daitezela nagusi, kanpoko eraginen gainetik. Hori bai, eraginok ez ditugu baztertzen, baizik eta gure sorkuntza prozesuaren barne integratzen ditugu, tradizio zeltikoen arteko senidetasuna delaeta", azaltzen du Luar na Lubrek.

Seriotasuna izan da Luar na Lubreren nortasun zeinua: "Gure proiektu musikala galiziar sustraidun doinuetan dago oinarrituta. Hori dela eta, Galiziako abesti bilduma tradizionalak ikertu genituen, galiziar musikaren errealitatea hobeto ezagutzeko", gaineratzen du taldeak.

> **"Euskal Herrian etxean bezala hartzen gaituzte, eta Bergaran ere harrera ona espero dugu"**

> **"Demokrazia mota berezia dugu Galizian, eta protesta soziala hauteskundeetan, ez da islatu"**

#### SARI ETA ERREKONOZIMENDUAK

Proiektu hori, oraingoz, zazpi diskotan gauzatu da. Azkena, *Espiral*, iazko apirilean atera zuten. Galiziako, Estatuko eta mundu osoko artistekin lankidetza –Euskal Herriko folkarekin ere izan dute harremana: Oskorrirekin, hain zuzen–; mundu osoko musika jaialditan esku hartzea; Galizian ospe handiena duten taldeetariko bat izatea, eta bertako folk berriaren aitzindariak direla; hamaika sari… izan dira Luar na Lubreren lanaren errekonozimendua. Joan den hilean jaso zuten azkena: Espainiako Musikaren Sarien barne, galizieraz abestutako disko onenaren saria, hain zuzen ere.

Lorpen horiek proiektu gehiagotan sartzeko animuak ematen dizkiete: "Aurten hasiko gara zortzigarren diskoa prestatzen, eta datorren urte hasieran, merkatuan izatea espero dugu", dio Bieito Romerok. "Horrez gain, bira bat prestatzen ari gara, bai Galizian, bai eta mundu osoan ere".

#### 'BURLA BELTZA'

Luar na Lubre taldeak konpromisoa hartu du Galiziako arazoekin ere. Hori dela-eta, Burla Beltzaren Aurkako Plataforma delako herri taldearekin egin du bat Luar na Lubrek, Galiziako kultura munduko beste hainbat eragilek bezala. Horren barne, plataforma hark antolatutako hainbat ekitalditan hartu izan du parte zortzikoteak. Azken ekitaldia izan zen otsailaren 15ean egin zen Itsaso Zaurituaren Aldeko Kontzertua. *Espiral* euren diskoan Costa da Morteri eskainitako lau abesti daude, eta ziur horiek ere Bergarako emanaldian entzuteko aukera izango dugula.

Luar na Lubrek argi azaltzen digu bere iritzia joan den maiatzaren 25ean egin ziren udal hauteskundeek Galizian izan zituzten emaitzen gainean. Izan ere, Alderdi Popularra gailendu zen Galizian. Taldekoek honakoa esaten dute: "Zoritxarrez, Galiziako egoera ez da ulertzen erraza; hemen dugun demokrazia ez da demokrazia sistema arrunta, inposatu egin ziguten, eta indarrean dirau. Hori jakinda bakarrik uler daiteke emaitza politikoek giza egoerarekin zerikusirik ez izatea". Are gehiago: "Orain erkidego hauteskundeak egingo balira, PPk galdu egingo lituzke. Baina udal hauteskundeetan aurreikuspen baikorregiak nagusitu ziren, eta Galizia ondo ezagutu beharra dago hori zergatik gertatu den ulertzeko. Hala ere, giza mobilizazioak aurrera segitu behar du", esaten dute.

Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua
M. ALTUNA

AENOR ER Empresa Registrada
CERTIFIED IQNet QUALITY SYSTEM

**Aurrematrikula** epea **ZABALIK**: ekainaren 2tik 11ra

**2003/2004 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA-ESKAINTZA**

■ **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**
- Administrazioa eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastiko eta Kautxugintza

■ **ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**
- Mekanizazioa (goizez eta gauez)
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administraritza Kudeaketa

**JAIETAN ERE BULEGOA ZABALIK DAGO. ONDO PASAU!**

**Ibargarai 1 • BERGARA**
Tf. 943 76 24 91/ 943 76 38 40
Posta-e: imaltuna@sarenet.es • www.imaltuna.com
Bulego orduak: 09:00etatik 13:00etara



# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko ekainaren 6a

Kultura eta aisialdia

Ekainaren 6tik 13ra




**'KATXI'**
OION

Oiongo pertsonaia historikoa da *Katxi*. Oion Laguardiatik banandu zenekoa dela diote askok. Herriko jaietan zinegotzi batek heldutako banderaren azpian irauli egiten da *Katxi*. Araba Euskaraz-en erabiltzeko diseinua Mikel Arroiabe debagoiendarrak egin du.

**MIKEL ARROIABE**
ARETXABALETA

Logotipoaren, maskotaren, webgunearen… diseinuaren ardura izan du. Horrez gain, Batzorde Iraunkorreko kide ere bada, eta horrek jaialdiaren ardura orokorrean parte hartzea eman dio.

**MAITE ERREMENTERIA**
BERGARA

Hiru irakasle debagoiendarren artean, San Bizenten urte gehien daramatza Maitek: zazpi urte, hain zuzen ere. Amatasun bajagatik ez da denbora osoan han egon, baina hainbat lan egin ditu: adibidez, elastikoak diseinatu zituen Maite Errementeriak.

**JUNE REDONDO**
ARRASATE

June ez da San Bizente Ikastolako irakasle, iaz arte ikasle baizik. 17 urte ditu, eta Oiongo ikastolara kanpotik joaten ziren ikasleetako bat izan da. Etzi, Araba Euskaraz ospatzen denean, Oionen egongo da, eta haren ardura izango da salmenta postu baten egotea.

**LEIRE EZPELETA**
ARRASATE

San Bizenteko irakasle moduan, debagoiendarren artean berriena da, baina hark ere burubelarri egin du lan antolatze lanetan. Etzi muntatuko diren guneetako bateko arduraduna izango da, hain zuzen ere, San Bizente Ikastolaren guneko arduraduna.

# ARABA EUSKARAZ-KO DEBAGOIENDARRAK

**Ibarreko lau irakaslek eta ikasle batek hartu dute parte etziko jaialdiaren antolaketan**

ILUSTRAZIOA: MIKEL ARROIABE

EUSKARA/ HIRU DEBAGOIENDAR ARABA EUSKARAZ ANTOLATZEN

# Araba Euskaraz, ibarrekoekin

DEBAGOIENEKO HIRU IRAKASLE IBILI DIRA ETZI, DOMEKA, OIONEN EGINGO DEN ARABA EUSKARAZ JAIALDIA ANTOLATZEN

LEIRE KORTABARRIA

**Aurtengo Araba Euskaraz jaialdiak zapore debagoiendarra izango du, Arabako Errioxan, Oionen, egingo den arren. Izan ere, ikastola antolatzailean lan egiten duten hiru irakasle debagoiendarrek hartu dute parte antolakuntza lanetan. Eurekin berba egiteko aukera izan dugu.**

Mikel Arroiabe aretxabaletarra, Maite Errementeria bergararra eta Leire Ezpeleta arrasatearra ibili dira aurtengo Araba Euskaraz jaialdia prestatzen. Mikel, Maite eta Leire ikastola antolatzaileko, Oiongo San Bizente Ikastolako, irakasleak dira, eta antolakuntza lanetan ibili diren 30 laguneko talde trinkoko partaide izan dira.

Euren lanaren fruitua etzi, domeka, ikusi ahal izango dugu, egun horretan egingo da-eta aurtengo Araba Euskaraz jaialdia. Bertan egongo da beste ibarreko bat, June Redondo ikasle ohia, arrasatearra bera, salmenta postu baten egongo dena. Debagoiendarrek gustura hartuko dutela dudarik ez dago, egin duten ahalegin handiaren ondoren: "Lana, lan handia ekarri du honek, baina baita esperientzia ere", diosku Mikel Arroiabek. "Lehen ere kolaboratu izan dut mota honetako euskara jaialdiekin, baina orain lehenengo aldiz izan naiz batzorde iraunkorreko kide. Asko ikasten da, bai", gaineratzen du. Mikelek bi urte daramatza ikastolako langile eta Leirek, berriz, bat; Maitek, ordea, urte asko daramatza lan horretan, eta bere esperientzia gaineratu ahal izan du.




SAN BIZENTE IKASTOLA

Ezkerretik eskuinera, Mikel Arroiabe, Leire Ezpeleta eta Maite Errementeria irakasle debagoiendarrak.

### ITZAL GEHIAGO

Irakasle debagoiendarraren esperientzia hori ez da bakarrik Oiongo herriaren ezagutzara mugatzen; kontuan hartu behar da Oionek beste bi alditan eman diola ostatu Araba Euskaraz jaialdiari, 1984an eta 1997an.

"1984ko esperientzia urrutiegi gelditzen zitzaigun. Baina 1997kotik hainbat ikasgai jaso ditugu", dioskute Debagoieneko ordezkariek. "Horren arabera, orduko akatsak berriro ez egiteko, hainbat aldaketa sartu ditugu. Garrantzitsuena izan da itzal askoko ibilbidea diseinatu dugula. Izan ere, aurrekoan bero larregi egin zuen, eta ibilbidea oso eguzkitsua zen. Oionen ditugun zuhaitz gutxiak aprobetxatu ditugu, eta bost kilometro eta erdiko ibilbidea egin dugu", komentatzen dute irakasleek.

### ALDEZ AURREKO EKINTZEKIN, POZIK

Baina jaialdi hori antolatzea ez da ibilbide aproposa prestatzea bakarrik; lan eskerga dago, aurreikuspen handia eskatzen duena; adibidez, aurtengoa prestatzen irailean hasi zen San Bizente Ikastola.

Lan horretan ere ibili dira Mikel, Maite eta Leire. Adibidez, promozio materialaren prestakuntzaz eta salmentaz arduratu behar izan dira. Debagoienean egon ziren maiatz erdi aldean, materiala saltzen. Eta arlo horretan ere ondo aprobetxatu dituzte aurreko edizioetako ikasgaiak: "Ikusi genuen arriskutsua izan zitekeela material asko bat-batean ateratzea, gero gerta zitekeelako guztia ez saltzea. Horren ordez, pixkana-pixkana atera ditugu, eta, egia esan, oso pozik gaude: oso ondo saldu da guztia", azaltzen dute Debagoieneko antolatzaileek. Zehazki esateko, elastikoak –"milaka mota desberdin"-, motxilak, poltsak, Arabako Errioxako ardoa... saldu dituzte. Baita hamar urteko Araba Euskaraz jaialdiko musika batzen duen CDa ere.

Aldez aurreko ekintzei garrantzi handia eman diete antolatzaileek –"jendeari gogora ekartzen die Araba Euskaraz ospatuko dela", azaltzen dute debagoiendarrek–, eta Debagoieneko parte-hartze handiagoa ere izan da horren harira: izan ere, ekintzetako bat Logroñon egindako kontzertu bat izan zen, Ruper Ordorika oñatiarrarena, hain zuzen ere.

## "Oion ez da Aramaio"

Ez da gauza bera Kilometroak edo Araba Euskaraz egitea, eta, azken kasu honetan, "ez da gauza bera Aramaion edo Oionen ospatzea", diosku Mikel Arroiabek.

Euskal kulturaren aldeko lanaren ilusioa, alde batetik, eta hango hizkuntza egoeragatik ardura, bestetik, nahasten dira Oiongo irakasle debagoiendarren hitzotan: "San Bizente Ikastolak 25 urte daramatza euskalduntzearen alde lanean, baina hura Erriotxatik kilometro pare batera dago, eta zaila da, egia esan".

Eustat erakundearen datuen arabera, 1996an Oionek zituen 2.242 biztanleetatik 26k bakarrik zuten euskara ama hizkuntza. Eta, era berean, hamar lagunek bakarrik erabiltzen zuten etxean hizkuntza nagusi moduan.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA




goi eskola politeknikoa

ARRASATEko campusa Telf: 943 79 47 00
- 1. Zikloko Ikasketak
  Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa
  Sistemen Informatikan Injinerutza Teknikoa
  Industri Elektronikan Injinerutza Teknikoa
  Industri Diseinuan Injinerutza Teknikoa
  Telekomunikazioetan Injinerutza Teknikoa. Telematikako Espezialitatean.
  Telekomunikazioetan Injinerutza Teknikoa. Telematikako Espezialitatean.
- 2. Zikloko Ikasketak
  Industri Antolakuntzan Injinerutza
  Industri Elektronikan eta Automatikan Injinerutza
  Informatika Injinerutza
  Industri Injinerutza

GOIERRIko campusa Telf: 943 88 00 62
Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa

LEA-ARTIBAIko campusa Telf: 94 616 90 02
Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa Polimerotan

enpresa zientzien fakultatea

OÑATIko campusa Telf: 943 71 80 09
- 1. Zikloko Ikasketak
  Gestio Informatikako Injinerutza Teknikoa
  Zuzendari Idazkaritza
- 1. eta 2. Zikloko Ikasketak
  Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura:
  - Bide kurrikularra: Finantza Zuzendaritza
  - Bide kurrikularra: Merkatal Zuzendaritza
  - Bide kurrikularra: Erakundeen Kudeaketa

ELGOIBARko campusa Telf: 943 71 41 32
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura

BIDASOAko campusa Telf: 943 63 91 29
Enpresa Zientziatan Diplomatura
- Bide Kurrikularra: Enpresa Logistika eta Garraioa
- Bide Kurrikularra: Nazioarteko Merkataritza

humanitate eta hezkuntza zientzien fakultatea

ESKORIATZAko campusa Telf: 943 71 41 57
- 1. Zikloko Ikasketak
  Irakasle Ikasketak:
  - Haur Hezkuntza
  - Hezkuntza Berezia
  - Atzerriko Hezkuntza
  - Heziketa Fisikoa
- 2. Zikloko Ikasketak
  Psikopedagogian Lizentziatura
- 1. eta 2. Zikloko Ikasketak
  Humanitateak-Enpresa Lizentziatura

INSKRIPZIO EPEA: ekainak 20ra arte

www.mondragon.edu

BERTSOLARITZA/ BERTSO SAIO 'ESPERIMENTALA'

# Lau bertsolari 'proban'

GAI-JARTZAILEAK ARIKETA ETA EGOERA BEREZIETAN KANTATZEKO AGINDU ZIEN BERTSOLARIEI

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Jon Maia, Aitor Mendiluze, Igor Elortza eta Andoni Egaña. Lau bertsolari, Josu Goikoetxea gai-jartzailearen aginduetara kantuan. Arrasateko Amaia antzokian entzun zen ale ederrik, eta saio esperimentalera jende gutxi inguratu bazen ere, bertsozaleak gustura ateratzeko ekitaldia izan zen.**

Monterronen zen izatekoa bertso saioa, baina eguraldiaren beldurrez edo ikusleak despistatzeko, Amaia antzokira aldatu zuten azken unean.

*Esperimental* izendatu zuten AED elkarteko Bertsolaritza Sailekoek antolatutako saioa,, eta laborategiko probarik ikusi ez bagenuen ere, bertsolariak proban jarri zituen gai-jartzaileak.

**ARIKETA BEREZIAK**

Agurrak modu tradizionalean kantatu zituzten, batutako jende apurrari ongietorria eginez. Izan ere, Egañak agurrean esan zuen moduan, inork ez zuen espero partidua zela-eta hainbeste jende etxean geratzea. "Futbola futbola da, hori garbi bego/ulertzen da Realak jokatu ezkero/baina Real Madridekin ez gendun espero", bota zuen Andonik.

Saioak normal antzean jarraituko zuela ematen zuenean, gai-jartzaileak Egaña eta Elortza mikrofono bakarretik kantuan jarri zituen. Mikrofonoekin joko asko egin zituzten saioan. Besteak beste, aita- semeek parez pare jardun zuten bertsotan.



IRATI AGIRREAZALDEGI

**Ezkerretik hasita, Josu Goikoetxea (gai-jartzailea), Jon Maia, Igor Elortza (kantuan) eta Andoni Egaña.**

Bakarkako saiorako, taularen albo baten baztertutako mikrofonora bidali zituen Josu Goikoetxeak bertsolariak.

Arrasateren gaineko gairik ez zen falta izan saioan. Besteak beste, gaztetxe berriaren gainean jarri zituen hizketan iritzi kontrajarridun bi gazte. Maia eta Elortzaren ekinaldian izan zen ale biribilik. Aipatzekoa da Maiaren bertso baten amaiera: "RIPeko kantari izan zena, koruakin kantatzera/ai Arrasate bihotzekua, zer zinen eta zer zera!".

Alai zineman irudikatu zuen gero gai-jartzaileak bikote hasiberria, eta zineman baleude bezala jarrita kantarazi zien Mendiluze eta Egañari. Gero, bakarka, binaka zein hirunaka jardun zuten bertsolariek. Gaiak askotarikoak izan ziren, baita neurri eta doinuak ere.

Saioa bukaera aldera joan ahala berotu egin zela esan genezake, eta bukaera ezin zen beroagoa izan. Eskutik helduta kantatzeko agindu zien Goikoetxeak lau bertsolariei, eta, irudi hura ikusita, bertsozaleek ezin izan zioten barreari eutsi, ezta bertsolariek eurek ere. Esperimentuek eta barreek bat egin zuten Amaia Udal Antzokian bertsoaren aitzakian.

NIREAUKERA



## 'TOGETHER'
## Lukas Moodysson

**Lukas Moodysson zuzendari suediarraren *Together* filma aipatuko dut tarte honetan. Askatasunaren aldarri bat da, baina askatasunaren balizko alde absurduaz ere ohartarazi nahi duela iruditzen zait. Ikusiko nituen akaso film hobeak, baina Europan egiten ari den zinemagintza independentearen adibide bat ematea egokia iruditu zait, oso lan onak sortzen ari baitira azken urteotan. Horrez gain, komentatutako film hau momentu berezian ikusi nuen, egoera zail xamarrean, baina barre apur bat egiteko balio izan zigun, nahiz eta filmean oso istorio garratzak ere agertzen diren.** /L.K.



**Olatz Osa**

Oñatiarra, 32 urte. Elkarlanean argitaletxeko zuzendaria da.

JAIALDIAK/ DEBAGOIENDAR LAGUN TALDE BAT FESTIMAD MUSIKA JAIALDIAN

# Ibarrekoak Festimad-en

DEBAGOIENDAR BATEK SORKUNEN KONTZERTUAN HARTU ZUEN PARTE

LEIRE KORTABARRIA

**Marilyn Manson, HIM... eta debagoiendarrak egon ziren joan den aste bukaeran Festimad musika jaialdian, Madrilen.**

Oñatiko, Eskoriatzako eta Aretxabaletako 13 lagun egon ziren hilaren 23tik 25era Madrilen egin zen Festimad musika jaialdian.

Kontzertuetan publiko moduan egon ez eze, ibarreko batek, Egoitz Olalde oñatiarrak, musikari moduan parte hartu zuen; izan ere, Sorkunen bateria jotzailea da (Sharon Stoner taldeko kide izateaz gain), eta harekin batera egin zuen emanaldia. Arrakasta handiarekin, gainera: "Jende piloa joan zen emanaldira: kanpa oso bat bete zen", dio Iban Idigoras oñatiarrak.

**TALDE ONAK ETA GIRO BIKAINA**

Estilo askotariko taldeen saioetara joan ziren ibarreko gazteak: "Oso-oso kalitate oneko taldeak ziren, musikari begiratuta; soinu aldetik, ordea, arazo batzuk egon ziren", dioskute.

Jaialdiotan gertatzen den moduan, musikatik kanpo beste zerbait nagusitzen da: "Giro bikaina zegoen, eta estilo askotariko jendea batu zen", diote.




JOSU TXINTXURRETA

**Kanpa oso bat jendez bete zen Sorkunen kontzerturako.**

# Ekainak 6-13

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► ***1936, gogoaren bidezidorretatik* dantza eta antzerki emanaldia** egingo dute Kukai eta Tanttaka taldeek bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan.

### BERGARA

► **Kale-antzerki emanaldia** egongo da bihar, zapatua, Xabier Maria Munibe plazan, 17:00etan.

► ***Elvis, joan adi!* kale antzerki saioa** eskainiko du Trapu Zaharra taldeak etzi, domeka, Munibe plazan, 19:30ean.

### OÑATI

► ***Morgan pirata lapurretan* 3 eta 10 urte arteko umeendako antzezlana** egongo da etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 17:30ean. Sarrera hiru euro kostako da.

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Udaleku Irekiak** antolatu ditu Udalak. Ekainaren 10etik 20ra arte izango duzue izena emateko.

### ARRASATE

► **Gaztetxe berriaren inaugurazio ekitaldia** egingo dute bihar, zaptaua. Dantzarien eta txalapartarien emanaldia egongo da, eta orain arte gaztetxean lan egin dutenen hitzaldia. Segidan, gaztetxearen historiaren gaineko bideo emanaldia egingo dute, eta bukatzeko, kontzertua egongo da. Ekintzak 22:00etan hasiko dira.

► **Oinarriko errentaren gaineko hitzaldia** egingo dute David Cassasas Bartzelonako Soziologia Unibertsitateko irakasleak eta Angel Abalde ESK taldeko Batzorde Nazionaleko kideak. Hitzaldia astelehen arratsaldean izango da, ekainak 9, udaletxeko osoko bilkura aretoan, 19:00etan.

► **Alkoholiko Anonimoen elkarteak 68 urte bete dituela-eta,** ate ireki jardunaldia izango da ekainaren 10ean, martitzena. Argibide gehiagorako 629 14 18 74 telefonora deitu.

► **Arrasate Musikalek plan estrategiko berria** aurkeztuko du martitzenean, hilak 10, udaletxeko areto nagusian, 19:30ean.

► ***Blokeoaren aurrean, elkarrizketaren alternatiba. Berriro saiatuko al gara?* hitzaldia** egingo du Fernando Arzallus Elkarriko kideak ekainaren 11n, eguaztena, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

► **Mendi Astearen barne,** *Jainkosen altzoan, Himalaia* diapositiba emanaldia egingo du Jon Belokik gaur, egubakoitza, Monterron jauregian, 19:00etan.

### BERGARA

► ***Euskaldunon Egunkaria*-ren akzioak** saltzeko mahaia egongo da gaurtik martitzenera bitartean San Martin plazan (19:00-21:00); martitzean, horrez gain, 12:00etatik 14:00etara ere egongo da zabalik. Bestalde, ekainaren 14an Donostian egingo duten euskarazko egunkari berriaren aurkezpen ekitaldirako sarrerak salgai daude Pol-Pol eta Kortazar tabernetan, bost eurotan.

► ***Ama lurra defenda dezagun* leloarekin,** kale agerraldia egingo du AHT Gelditu! Elkarlana taldeak etzi, domeka, Bideberritik abiatuta, 18:00etan.

### ELGETA

► ***Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko** Berriak Berri kanpainaren aurkezpen ekitaldia eta bideo emanaldia egongo dira martitzenean, hilak 10, liburutegian, 20:00etan.

### ESKORIATZA

► **Orioko kanpinean egonaldia** antolatu du Gaztekantoi zerbitzuak uztailaren 10etik 16ra, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleendako. Izena emateko epeak zabalik dirau. Horretarako, eraman izenemate orri betea, ordainketaren ziurtagiria eta Gizarte Segurantzako agiriaren fotokopia kultura etxera, lehen bailehen.

### OÑATI

► **Euskal Selekzioaren gaineko hitzaldia** antolatu du Elkar-Hezi Ikastetxeak ekainaren 10erako, martitzena, Santa Ana aretoan, 19:30ean. Ritxi Mendiguren ESAIT-eko kidea, Koldo Irurtzun EHUko irakaslea eta Markel Irizar txirrindulari oñatiarra egongo dira.

► **Kirmen Uribe idazleak** poesia emanaldia egingo du ekainaren 11n, eguaztena, kultura etxean, 19:30ean.

► **Bilin-Bolon zirkoaren emanaldia** egongo da ekainaren 14an, zapatua, kiroldegian, 18:00etan, eta sarrerak salgai daude dagoeneko, hiru eurotan. Argibideak, Elkar-Hezi Ikastetxean.

## JAIAK

### BERGARA

► **Mendekoste jaiak** ospatuko dituzte gaurtik, egubakoitza, martitzenera bitartean.

### ESKORIATZA

► **Eskoriatzako VII. Ferixie** antolatu du Arizmendi Ikastolak biharko, zapatua. Ekitaldiak 09:00etan hasiko dira eta azoka bera, 10:30ean. Urtero bezala, baserriko produktuak, artisautza, abereak, tresnak… egongo dira ikusgai. Ordu berean, 10:30ean, eskulan lantegiak eta puzgarriak egongo dira; baita Txorimalo Lehiaketa eta musika emanaldiak ere. 15:00etan herri bazkaria egingo dute frontoian.

### OÑATI

► **Antzinako jolasen gaineko jaialdia** antolatu du Elkar-Hezi ikastetxeak gaurko, egubakoitza, Herriko Plazan, 17:00etan. Ikastetxeko ikasleek sasoi batean Oñatin egiten ziren jolasak aurkeztuko eta jolastuko dituzte.

## LEHIAKETAK

### ARETXABALETA

► **Andramaixetako** Kartel Lehiaketa deitu du Udalak. *Andramaixak 2003, abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a, Aretxabaleta* da derrigorrezko testua, eta ekainaren 23a da mugaeguna.

► **Kurtzebarriko** Kartel Lehiaketa deitu du Murrukixo elkarteak. *Kurtzebarriren 75. urteurrena, irailak 14* jarri



► ERAKUSKETAK

### BERGARA HIRIA XIX. ARGAZKI LEHIAKETAKO LANAK IKUSGAI

Bergarako Pol-Pol argazki taldeak banatu berri ditu Bergara Hiria XIX. Argazki Lehiaketako sariak, eta honakoak izan dira irabazleak: zuri-beltzeko argazkien kategorian, Benito Cantero bergararra, *Urbasa* izeneko lanarekin; eta koloreetako argazkien sailean, Jose Agustin Gurrutxaga, bergararra hura ere, *Paisaje industrial* lanari esker. Bakoitzari 180 euroko saria egokitu zaio. Beste hiruna lagun saritu dituzte kategoria bakoitzean. Edizio honetan 174 argazki jaso ditu Pol-Pol elkarteak, 97 koloreetan eta 77 zuri-beltzean; 27 lagunek hartu dute parte koloreetako sailean eta 21ek zuri-beltzeko kategorian. Lanen erakusketa ekainaren 15era arte dago zabalik, Bergarako kultura etxean.

**Non:** Bergarako kultura etxean. **Noiz:** ekainaren 15era arte.

**LIBURUZAINA**

LIBURUZAIN bat kontratatu nahi da aldi baterako.

**Baldintzak:**
- Edozein diplomatura edo unibertsitateko erdi mailako titulua.
- Euskara jakitea, 3. HEren parekoa.

Interesdunak ekainaren 11n aurkeztu behar dira goizeko 10:00etan Udaletxean hautaketa probak egiteko.

**Oinarriak**: Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: arrasate-mondragon.org

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal saila

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25



## TXISTULARIEN EMANALDIA ETA TOPAKETA

Leizarra Musika Eskolako txistularien emanaldia egongo da martitzenean, ekainak 10, eskolan bertan, 18:00etan. Horrez gain, datorren zapatuan, ekainak 14, Euskal Herriko udal txistulari banden topaketa eguna izango da Oñatin. Euskal Herri osoko 13 hiritako bandak etorriko dira.

beharko du derrigorrez. Lanak Murrukixoren egoitzara eraman beharko dituzue, hilaren 23a baino lehen. 150 euroko saria emango dute.

► **Andramaixetako Esaldi Lehiaketa** deitu du Udalak. 13 urtetik gorako edozein aretxabaletarrek edo bost kideko edozein taldek esku hartu ahal izango du. Esaldiok aurkezteko jo udaletxera edo kultura etxera, ekainaren 23an azken egunez.

### EUSKAL HERRIA

► **CAF-Elhuyar X. sariak** deitu ditu Elhuyar fundazioak. Dibulgazio-artikuluak sarituko dituzte. Azaroaren 15a izango da mugaeguna. Argibideetarako, deitu 943 36 30 40 telefonora.

► **III. Agustin Zubikarai nobela labur lehiaketa** deitu dute Elkar argitaletxeak eta Ondarroako Udalak. Euskaraz sortutako nobelak aurkeztu ahal izango dira, gutxienez 50 orrikoak, eta gehienez 100ekoak. Bidali hiru ale honako helbidera: Ondarroako Udala - Euskara Zerbitzua. 48700, Ondarroa. Mugaeguna abenduaren 1a izango da.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Jon Iturbe** musikariak rock kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Olarte kaleko Jai-Zale tabernan, 22:00etan. The Hot Dogs! taldeko abeslari ohia da Jon.

► **Spank (2) eta Los Chicos Boom** taldeen kontzertua egongo da bihar, zapatua, gaztetxe berrian. Inaugurazio ekitaldia 22:00etan hasiko da, eta azken ekintza izango da kontzertua.

### BERGARA

► **Su ta Gar** taldeak *Itsasoz beteriko mugetan* disko berria aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. Ehiztari Beltza taldeak ere egingo du emanaldia.

► **Luar Na Lubre** galiziar folk taldearen emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 22:30ean.

► **Niños Mutantes, Painful, Fevers eta Dixie 900** taldeen kontzertua egongo da gaur, egubakoitza, Bideberrin, 00:00etan.

► **Disko Festa** musika jaialdia girotuko du Joseina Etxeberria disko jartzaileak gaur, egubakoitza, San Martin plazan, 00:00etan.

► **Kokein, Sorkun, Eraso, Destrucción eta Goiko Rock**-en emanaldia izango da astelehenean, ekainak 9, txosna gunean, 00:00etan.

► **Cool jerks, RIP KC, Bumer eta Black Sheeps** taldeen kontzertua egongo da bihar, zapatua, Bideberrin, 23:30ean.

### ESKORIATZA

► **Kokein** rock taldeak kontzertua eskainiko du ekainaren 13an, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 22:00etan.

# Zinema

### ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

***El cazador de sueños***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

***El libro de la selva 2***
Zapatua eta domeka: 17:00.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **AMAIA ANTZOKIA**

***El empleo del tiempo (J.B.A.)***
Eguena, zine kluba: 21:30.

### OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEA**

***X-Men 2***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***Chicago***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***Matrix reloaded***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik martitzenera: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Matrix reloaded***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Eres mi héroe***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Polígono sur***
Egunero: 20:00.

***Esto no es un atraco***
Egunero: 17:30, 22:30.

***Ejecutivo agresivo***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***La vida de David Gale***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Relaciones confidenciales***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***El furgón***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Taxi 3***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Ken park***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Aquellas juergas universitarias***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Matrix reloaded***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***X-Men 2***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***En un lugar de África***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Frida***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Ted Bundy***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***La vida de David Gale***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Torremolinos 73***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Te quiero para siempre***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Samurais***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***La bici de Ghislain Lambert***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***A lo grande***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***En un lugar de África***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***La herencia***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Megasonikoak***
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 12:00.

***Pianojolea***
Zapatua: 19:45.

■ **STER ZINEMAK**

***En la oscuridad***
Egubakoitza eta zapatua: 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 20:05, 22:05.

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitza: 18:30, 20:45, 23:00, 01:15.
Zapatua: 16:15, 18:30, 20:45, 23:00, 01:15.
Domeka: 16:15, 18:30, 20:45, 23:00.

***La prueba***
Egubakoitza: 17:50, 20:10, 22:35, 00:55.

***Matrix reloaded***
Egubakoitza: 18:00, 21:00, 00:15.
Zapatua: 16:00, 18:45, 21:30, 00:15.
Domeka: 16:00, 18:45, 21:30.

***Al filo de la muerte***
Egubakoitza: 18:10, 20:15, 22:25, 00:30.
Zapatua: 16:05, 18:10, 20:15, 22:25, 00:30.
Domeka: 16:05, 18:10, 20:15, 22:25.

***Esto no es un atraco***
Egubakoitza: 18:25, 20:20, 22:15, 00:10.
Zapatua: 16:25, 18:25, 20:20, 22:15, 00:10.
Domeka: 16:25, 18:25, 20:20, 22:15.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza: 18:10.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:10.

***Los Thornberrys***
Egubakoitza: 18:15.
Zapatua eta domeka: 16:25, 18:15.

***Lilo & Stitch***
Egubakoitza: 18:05.
Zapatua eta domeka: 16:10, 18:05.

***Ejecutivo agresivo***
Egubakoitza: 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Zapatua: 16:05, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Domeka: 16:05, 18:20, 20:30, 22:40.

***Besos de gato***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 20:00, 22:00.

***X-Men 2***
Egubakoitza eta zapatua: 19:55, 22:30, 01:05.
Domeka: 19:55, 22:30.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX**

***Matrix reloaded***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

***Relaciones confidenciales***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***Eres mi héroe***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:20, 20:20, 22:25, 00:25.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:20, 20:20, 22:25.

***Posesión infernal***
Egubakoitza eta zapatua: 20:40, 22:40, 00:40.
Domeka: 20:40, 22:40.

***Taxi 3***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***Condenado***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:25.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25.

***X-Men 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:15, 00:45.
Domeka: 12:15, 17:00, 19:30, 22:15.

***En el filo de las olas***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.

***Ejecutivo agresivo***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

***Al filo de la muerte***
Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.
Domeka: 12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35.

***Johnny English***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:10.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:10.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00.

***El último golpe (Heist)***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:10, 00:20.
Domeka: 20:00, 22:10.

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:10, 22:20, 00:40.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:10, 22:20.

***En la oscuridad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.
Domeka: 12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45.

***El cazador de sueños***
Egubakoitza eta zapatua: 15:35, 18:35, 21:35, 00:35.
Domeka: 12:15, 16:05, 19:05, 22:05.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Chicago:* ●●●● | *En un lugar de África:* ●●● | *El último golpe (Heist):* ●● |**

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### LA VIDA MANCHA

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Enrique Urbizu.
**AKTOREAK:** José Coronado, Zay Nuba, Juan Sanz.

Soldata kartetan galtzen duen kamioilaria, senarra heltzen denean paperak ezkutatzen dituen emaztea…. Eszena horiek itxura egite eta gezurretan oinarrituriko harremanen jakinaren gainean ipintzen gaituzte. Bikoteek euren buruhauste eta sentimenduak ezkutatzen dituzte, eta nahiz eta jakin zer ari den gertatzen, jakingo ez balute bezala egiten dute. Hori da *La vida mancha*-ren aurretiko planteamendua. Horrek ikuslearen jakin-mina pizten du, eta jakin-min hori areagotu egingo da kamioilariaren anaiaren agerpenarekin. Hura, urte askorako alde egin ondoren, jaioterrira bueltatuko den gizon isila eta misteriotsua da. Etorri berriaren eta familiaren artean eratzen diren harremanak istorioaren ardatz nagusi bihurtuko dira.

*La vida mancha*-k bi pertsonaia motarekin jokatzen du. Filmak, alde batetik, egunero ikusten den familia arrunt bat aurkezten digu, bere gezur txikiekin eta nork bere buruari egiten dizkion iruzurrekin. Iruzur horiek, askotan, besteak engainatzeko baino, geure buruari engainu egiteko izaten dira.

Eta, beste aldetik, José Coronadok oso ondo egiten duen pertsonaia daukagu. Pertsonaia horrek misterioa, dotorezia eta ezezagunek sortzen duten erakarpena antzezten ditu. Topaketa horren eraginez, sentimenduzko lotura berriak ezarriko dira. Begiradek eta keinuek pertsonaiak hitzekin esatera ausartzen ez diren sentimenduak adierazten dituzte. Istorioaren neurketa dramatikoa oso ondo lortua dago, presarik gabe baina etengabe goraka egiten du, eta horrela, ikusleak arreta handiz jarraitzen du aditzera ematen zaion guztia.



*La vida mancha* film ona da, baina ez da guztiz biribila. Coronadok egiten duen pertsonaiari ematen zaion tratamendua pixka bat nahasia da. Pertsonaia modu misteriotsuan aurkezten zaigu, eta haren iragana ezkutuan uzten da. Ematen du pertsonaiaren iraganak istorioan eragin eta garrantzi handia izan behar duela, istorioa *thriller* kutsua hartzearekin jokatzen du, eta azkenean ez dugu horren gainean ezer jakingo. Hori dela-eta, istorioan bete gabeko hutsune bat geratzen da.

ANTONIO ZABALA

**INMO f3 inmobiliaria** — SARE
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**SALGAI**

**ARRASATE**
- 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
- 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.
- 69 m². Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela eta sotoa. Guztiz berritua.

**BERGARA**
- 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.

**ANTZUOLA**
- 75 m². Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka. 161.071,24 euro (26.800.000 pta).

**ERRENTAN**

**OÑATI**
- Hiru logela, egongela, sukaldea (hornituta) eta bainugela.

**Ikasleendako hainbat etxebizitza ematen dira errentan**

**ESKAERA HANDIAGATIK ETXEBIZITZAK BEHAR DITUGU SALGAI EDO ALOKAGAI.**

**KOROSTI** INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**
276.465,57 euro (46 milioi).
Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
- Arane erreka. 87 m² erabilgarri. Trastelekua. Oso ondo dago.

**BERGARA / Tabernak salgai eta errentan**

**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**

**BASERRIAK**
- Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
- Ormaiztegi, Osintxu, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloa, Elosu, Zegama, Asteasu.

**Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.**

**ARETXABALETA**
**TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.**
**943 77 03 08**

# 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

